


GOIERRITARRA

124 p.k. Ordizia --Goierriko Aldizkaria-- dohain banatzen da

GOIERRITARRA HILABETEKARIA. 35. zenbakia. 93ko ekaina.

Uda badatorrela !





ARGIA^{ren}

harpidedun izan nahi dut

48 ale eta Euskal Kulturaren Urtekaria jaso nahi ditut etxean

Orain ARGIAren harpidedun eginez gero, beste aldizkari baten urte osoko harpidetza dohainik izango duzu. Gurutze batez adieraz ezazu zure hautua:

☐ Larrun (urtean lau ale)
edo

☐ Susa, (urtean bi ale)

ARGIA: Industrialdea 1-2. LASARTE-ORIA 20.160 Tel. 37 15 45 Fax. 36 10 48

IZEN DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA

HERRIALDEA

Tfnoa

BANKU EDO AURREZKI

KUTXA

SUKURTSALA

SUKURTSAL ZKA

KONTU ZENBAKIA

HARPIDETZA SARIAK (BEZ barne): Hego Euskal Herria: 10.300 pzta. / Ipar Euskal Herria: 685 libera / Espainia: 10.300 pzta. / Beste atzerriak: 13.450 pzta. / Airez: 21.300 pzta.



matrikula zaitez

UDA IKASTARO TRINKOAK

GOIZTIRI  EUSKALTEGIA

UZTAILA

x IKASTAROA:

✓ Ekainaren 28tik uztailaren 23ra

x MATRIKULA:

✓ Ekainaren 7tik 23ra, goizez eta arratsaldez

x MAILAK:

✓ Euskalduntzea, alfabetatzea eta EGA

x ORDUTEGIAK:

✓ 5 ordu egunean, 8,30etatik 2etara

✓ 3 ordu egunean, 10etatik 1etara

IRAILEAN ERE BAI INFORMAZIO GEHIAGO:

ORDIZIA: SANTA ANA IKASTETXEA - 889174 Tfnoa.

BEASAIN: KALE NAGUSIA, 5 -3.a - 888340 Tfnoa.

UDALAK SUBENTZIONATUA

GOIERRITARRA HILABETEKARIA

Goierrialdeko Aldizkaria

35. zenbakia. 93.eko Ekaina. Debaldeko alea. Tirada: 3.000 ale. 2.500 harpidedun.

Argitaratzailea: "Goierritarrak Kultur Elkarte. Dorre-etxea, 1. pisua (Correos-gainean). Tfna: 889612. Faxe: 889545. 124 posta kuxta, Ordizia.

Aldizkari honek Goierriko Udal gehienek dirulaguntza jaso izan du.

Erredakzioa: Jon Arano, Mikel Albisu.

Erredakzio Batzordea: Andoni Sarriegi, Tere Irastortza, Jon Arano, Mikel Albisu, Jon Imanol Iturrioz, Patxi Zubizarreta, Ane Martin, Loizabaz Agirre, Nekane Altuna, Rosa Amundarain, Jesus M. Munduate,

Amaia Balerdi eta Estitxu Imaz.

Kolaboratzaileak: Dionisio Amundarain, Gabino Murua, Jexux Intsausti, Iñaki Amundarain, Marijoxe Madariaga, Zirika irratia, Jon Lasa, Arkaitz Arruabarrena, Kilometroak 93, Mikel Aramendi, Joxe Begiristain, Euxebio Igartzabal, Arantxa Arza, Jone Arin, Josune Arruabarrena eta Maizpideko arkakusoak.

Azala: Dioni. Zenbait argazki: Foto Etxe eta Dioni.

Gure eskerronak: Gure "sponsorei": publizitatea ematen diguten

guztiei. Era batera edo bestera lagundu nahi liguketenei, gauzak errazten dizkiguzuenoi eta nola edo hala parte hartu nahi duzenoi

Fotokonposaketa eta maketazioa: GOIERRITARRA. Inprimaketa: ANTZA, S.A. (Industrialdea, 1-2. Lasarte-Oria)

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRA ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

GOIERRITARRA Etxean jaso nahi dut
NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

Izen-Deiturak:

Helbidea:

Herria: Tlf:

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali.

DOHAIN GOIERRIKO ZENBAIT UDALEI ESKER

NON ZER

4. orria, eskutitzak eta abar...
5. orria, agenda
7. orria, besteez esana
8. orria, kilometroak 93
9. orria, berriak labur
10. orria, Goierriko biztanleek ikerketa
12. orria, uda dator: Emeterio Sorazuri elkarriketa
15. orria, goierritarrak munduan
16. orritik 23.era, Ataun, Gabiria, Lazkao, Zaldibia, Zerain, Olaberria, Ormaiztegi, Itsasondo, Ordizia eta Idiazabalgo berri zuzen eta zabalak.
24. orria, Joxe Aierbe aizkolariarekin herri kirolaz
26. orria, mendia eta kirola bi lerrotan
27. orria, kultur ataria
28. orria, Joanito Dorronsororekin solasean bertso doinutegiaz
30. orria, liburuen saila
31. orria, Iparragirretar trikitilariarekin
32. orria, Ataungo kontuak...!
34. orria, Iztueta zaldibiarra
35. orria, gastronomia

Etengabeko Hitzak

Hanitxek badaki, Euskal Herri Euskadi nahiko lukean hontan, poesiak zer lekü handia düan, argitaletxeen politika komertzialetarik kanpo, prefosta. Poesiak, gure egünorozko ürratsak lantzantzen eta ürgaizten dütüala senditzen da ardüra. Hitza erabilten dügü, erdiaroko fedezko ebiltarien moldean, bideko makil bezala, eta bidearen lüzea, zanko-pean llabürtzen zaigü, Gandiagaren nahiz Lauaxetaren olerkien konpainian. Züntzürretarik behatzpüntetala ixurten diren hitzen eztirtazüna txestatü günüan, Jon Arano eta biok, Itsasondon, aurtengo jorrailaren 17an, Eustakio Mendizabalen Algotako eküratokiko hilketaren hogeigarren urtemügan.

Libürüa esküetan, poesiaren irakurtean, bede-bederazka, gogoaren türbüts edo bakean, gaüza bat da. Bena, "Esazu itzerdi/ Ta or nauzu Euzkadi..." xüxenean deiadarkatzea, oso desbardi-na da, ekintza poetiko gisa. Botzaren ozenak, erraïetalaino eroiaten beit dütü, gaurkoan iraüiten düen beste borreketan norbaitek (Eustakio Mendizabalek...) urte parrasta bat düala izkribatüak. Hitzen arra-aragitzean datza poesiaren misterioa, "Esazu itzerdi/ Ta or nauzu Euzkadi!" oihüak ez beit dü aktüalitate izpirik galdü.

Euskal Herriko üsantxetan bada manera ejer bat orano, mitoen sortzeko, azteko eta hedatzeko: kantorea... Itsasondoko arratsean, Etxamendi eta Larralde, bai eta kantagintzan berriagoak diren Daniel Xalbador eta Iñidoiek, poesiaren arana, Goierriko bortü hexietan barna zabaltü züen. Hitza ahaide bateki ezkontzen delarik, güdüka-alorretako tiro herotsen oiharzüna entzüten dela dirüdügü, eta kantoreak behatzean, müsikaz edo müsikaz bilaiz, senditzen dügü mitoa-ren ütürrietala hüilantzen ari girela.

Koblakari baten presentzia, gaü hartan ere arras garrantzitsüa zela aitor dezagün, eta miletan sinbolikoa, arabar koblakari batena. Rikardo Gonzalez de Duranak bete züan Euskal Herriak eraikitzen düan *Odysseus* gisakoaren altxorra.

Aipagarria zen, ber zoñüan, Eustakio Mendizabalen familiaren duintarzüna: ama... anaiak... adixki-deak... Familiaren duintarzünaz ari girelarik, erantsi beharko günüke, hegoaldean eta iparraldean, eüntaka familia biltzen direla duintarzün bermazü hortan. Duintarzün horren izenean, aski agerian da, aitzina joaiteko zedarriak lürrean lantatzen dütügüla, zonbaitetan hortzak tinkatzen eta gaineratikoetan kolore frantkotako banderak alageraki altxatzez. Batarzüna orano sufrimentüetan oinarritzen balin ba da, esperantxa ba dügü ordea, egünen batean, minaren batarzüna, zorionaren batarzünak ordezkatüko düala. Heltübada, Eustakio Mendizabalek ez züan besterik agiantzen, eta nolazpait, ihardok-ildo hortan poesiak doi bat lagüntüko gütüke: "(...) Karraxi/ erria bere burujabe izatera/ erakarriko dun karraxi" (Mendizabal).

Etengabeko hitzak...

Itxaro Borda


Bota bertsoa

Marronek orain marka berri bat egina digu egundo Everestera hortxe igo da oso bikain, oso ondo jende gogorra dudarik gabe gezurrik ez det esango ataundar hauek "la hostia" dira besterik ez da izango hauek zapaldu gabe lekurik ia ez da inun egongo.

Aldapa gorrak, arnas bizia haizea berriz latigu punta puntaño iritxi zaigu ikurriña da testigu beste gizon bat ba da Ataunen historiaren katigu On Joxe Migel genuen hura denok ederki dakigu ta honi berriz On Joxe Marron deitu beharko diogu.

Oñate, Zerain eta Agirre igo diran hirukoa bat egin dute Nafarroakin Araba ta Gipuzkoa ta beraiekin lanean tinko aritu dan ekipoa emaitza hortxe jaso dutenez eta ez nolanahikoa ez ahal da hori zoriontzeko aina edo modukoa. Jon Lasa (Lazkao)

**A ze
flaxa !**


Casa de Cultura Bamera
A la Atencion de
Nicolas Lekuona
c/ Inaki Hidalgo
ORDIZIA

HIDALGO
BITXIDENDA • ERLOJUDENDA

LEGAZPI, 4
Tfnoa: 88 04 06

ORDIZIA

SUKALDE ETA BAINUKO HALTZARIAK
ELEKTROTRESNAK - TV - HI FI



OYARBIDE

IGARTZA-ETXEA,2
Tlf:88 26 21 - 88 15 96
Fax: 88 77 85
BEASAIN

OLABERRIA MERKATAL Z.
Tlf:16 16 00
Fax: 16 16 02
OLABERRIA

Lana

□Fotokonposaketa lanak egiten ditugu GOIERRITARRAn, kartelak, inprimakiak (buzoneatzeko, diptikoak, triptikoak...) eta horrelako mota guztietarako lanak. "ANtZA" Inprimategiarekin batera (maisuen eskutik) zure inprenta-lanak egingo ditugu. Dei 889612 telefonora edo inguratu lasai Ordiziako gure egoitzara.

□Emakume bat prest etxekolanetarako: 884737ra dei.

□Enpresarialesko ikasle batek lanerako gogoak ditu, udako hilabeteetan, euskaraz ondo jakinik, edozein lanetan arituko litzateke. Oskar, 884435 tfnoa.

Salerosketak

□Litroko koñak botila huts mordoa daukat (4.000 bat), garbi-garbiak. Ietatik 2etara edota gaueko 9etatik aurrera dei 551461ra. Urnieta. Migelengatik galde.

□Saldu edo trukatu egiten da Peugeot 504 (SS-M) diesela ITVrekin. 150.000 pzta.gatik edo kotxe txiki bategatik. Dei: 880851ra (Nekane).

□Sukalde mixtoa, erabilia, salgai: 885179.

□"Adria" karabana, 4-5 lagunentzako modukoa eta berria bezala salgai. 801620ra dei.

□Zakur "Ispanier" a salgai, ehizean badaki, 882028.

Etxebizitzak

□Pisua salgai Ormaiztegin, sukalde berria eta jantzia, sala, 3 gela eta bainua. Aukeran. Beni, 9tik 1etara, 880603ean.

□Buardila gisako pisua salgai Ordizian. Berritua, 2 gela, sala, sukaldea, bainua eta trasteroa. 889773era dei 20etatik aurrera.(N)

Agurrak:

Goyarritikan etorri zan da ez da biziyo atzendu disimulan ibili arren bastante deklaritzen du. Ondo dakigu bi urte ontan ori nola dan mantendu ofiziyo bat daukan meriyo askoren bizkar jaten du zeruko izarren kontaduriya gabero eramaten du.

(Ezkontza galdutako bertsoak, XIX)

BEASAINGO "AI GEALA" EUSKARA TALDEAREN AK

* Beasainen euskararen erabilpena sustatu eta euskal kultura indartu asmoz eratu berri den "Ai geala" Euskara Taldeak beasaindar euskaltzale guztiei zuzendutako bazkidetza-kanpaina bat ireki du. Euskara-maila minimo baten jabe bazara, ahal duzun neurrian euskararen alde lan egin, urteko kuota txiki bat ordaindu eta bazkideen arteko errespetu osoa gordetzeko prest bazaude, talde honen partaide izan zitezke. Horretarako, Beasaingo hainbat tokitan (edaritegietan, dendetan, Udal-bibliotekan e.a.) banatu den bazkide-fitxa bete eta toki hauetan bertan edota Udaleko Euskara-zerbitzuan entregatzea besterik ez duzu. Anima zaitez eta zatoz gurekin.

* Euskara talde honek logotipoa aukeratzea erabaki du eta lehiaketa bat antolatzeara.

EUSKARA MERKATARITZAN BEASAINEN

Beasaingo Udalak, Euskara Batzordearen eskutik, merkataritzaren alorrean euskara sustatzeko kanpaina jarri du martxan. Kanpaina honen helburu bat, sektore honetan erabiltzen diren materialak euskaratzea da eta, bestetik, dendariak ahoz nola idatziz dituzten harremanetan euskararen presentzia ugaritzea. Kanpainaren lehen urratsa sektore honetako euskararen egoera ezagutu eta dendarien iritziak jasotzea da. Udalak bi lagun kontratatu ditu datu-bilketarako, Beasaingo 350en bat dendetara joateko.

LAZKAOTXIKI BERTSOPAPER LEHIAKETA

Lehiaketa 3 mailatan banatzen da. Gaztetxo, Gazte eta Helduen mailak. Gaztetxo mailan, gaia "Kilometroak aurtien Ordizian". Neurri, doinu eta gaiak libre izango dira gainontzekoetan. Lanak Uztailaren 1aren aurretik bidaliko dira Argi-Berri Elkartera, Gipuzkoa k. 15 Ordiziara. Sari bikainak izango dira.

LEGORRETA KO BERRI

□Legorretako jaien hondarrean: Ekainak 12, larunbata: 10,00etan diana dultzainariekin; 12,00etan Bilkoin-ek antolatutako Herri Krossa; sari-banaketa ondoren; 18,00etan IV ardo-dastatze txapelketa; 18,30etan Udalak zahagi ardo bikaina eskainiko du herritar eta bisitarientzat. 19,30etan usariozko meriendak plazan, "Txalaparta" txarangak alaituta; 23,00etan I Korputz jaialdia udal pilotalekuan; ondoren eta goizalderarte, kalejira eta dantza saioa "Txalaparta"rekin.

□Bi ikastaro: Lorazantza Ikastaroa ihardunean Legorretan ekainaren 29a arte, astearteetan 3,30etatik 5etara Herri Eskolan. Argazkilaritza ikastaroa hile amaierarte, astearte eta asteazkenean, 7etatik 9etara, Herri Eskolan.

□Ordiziako Herri Antzokia: Maiatzak 4: Herida, 10'15; 5: El libro de la selva, 7'30; Herida, 10'15; 6: El libro de la selva, 4'45; Herida, 7'30-10'15; 7: Herida, 7'30; 11: Juego de lagrimas, 10'15; 12: Juego de lagrimas, 7'30-10'15; 13: Somos los mejores, 4'45; Juego de lagrimas, 7'30-10'15; 14: Juego de lagrimas, 7'30; 18: Malcom X, 10'15; 19: Malcom X, 10'15; 20: Cariño he agrandado al niño, 4'45-7'30-10'15; 21: Cariño he agrandado al niño, 7'30.

□Ordiziako Mendizaleak: Ekainak 6: Mendi-garbiketa; 13: Hecho-Acher-go gaztelua; 20: Lizarraga-S.Donato-Unanua; 26: Ordizia-Orio (Kaiku).

□Pausogaizto: Ekainean, Erreka ibilaldia, Arkaka -Zaldibia, edonorentzat.

□Beasaingo Aitzgorri Mendizale Elkarteak: Ekainak 6: Aizkolegi; 13: Santirso; 20: Arno; 27: Akanpada.

□Ordizia/Beasaingo Goardiako farmaziak: Ekainak 3: Jauregi; 4: Laurnaga; 5-6: Arriola; 7: Cuesta; 8: Arriola; 9: Urbizu; 10: Atorrasagasti; 11: Azpilikueta; 12-13: Cuesta; 14: Jauregi; 15: Laurnaga; 16: Cuesta; 17: Arriola; 18: Urbizu; 19-20-21: Atorrasagasti; 22: Azpilikueta; 23: Jauregi; 24: Laurnaga; 25: Cuesta; 26-27: Urbizu; 28: Arriola; 29: Urbizu; 30: Atorrasagasti.

MUEBLES

Ordizia

HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

LOINAZ Taberna — Jatetxea

BAZKARI ETA AFARIAK

K/ Nagusia, 27 — Tlf. 88 20 07 — BEASAIN



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA

JAUREGI

TOLDOAK s/l

Telefonoak: 88 02 43 - 88 01 33

BEASAIN

 Fotokonposaketa lanak egiten ditugu **GOIERRITARRA**n, kartelak, foiletoak, inprimakiak eta mota hauetako lanak. "ANTZA" inprimategiarekin bat (*maisuen eskutik*) zure inprimategi lanak egingo ditugu. Deitu lasai ☎ 88 96 12 ♣

FOTOKONPOSAKETA

ANTZA

Lasarte-Oriako Industrialdea, 1-2 Pabiloiak
Tfnoak: (943) 37 15 45 Faxe: (943) 36 54 93
37 07 38

INPRIMATEGIA

**GRAFIKAGINTZAN
AURRERA GOAZ**

Besteek esana

Jakintza Ikastola, ikasle ohien esanetan

Ordiziako Jakintza Ikastolaren 25. urteurrena dela eta, Idoia Arteagak "Egin" egunkarian bildu ditu bertako zenbait ikasle, irakasle eta juntakideen

adierazpenak.

□ "Egunkaria"ko Alazne Iturrioz-ek zioenez, oso urte eta lagun onak egin omen zituen Jakintzan. Ordiziako beste ikasle batzuk, 'las vascas' deitzen omen zieten. "Orduan ordiziar ikasleen artean gaztelerarako joera handia bait

zegoen. Gaur egun Ikastolako haurrak kalean euskaraz hitzegiten entzuten ditudanean asko poztzen naiz, aurrera-pauso handia eman da".

□ Elena Oiharbide eta Esteban Egilegor (Oiangü Ingurugiro eskolako irakasleak), Ikastolako ikasle ohiak dira baita ere eta hor euskaraz ikasteko aukera izan zutelako pribilegiatuak sentitzen dira.

□ Xabier Amondarain legorretarra, ikasle izatetik irakasle izatera pasa zen. Ikastolan BBB egin zuen lehen belau-naldikoa da; Ordiziara etorri aurretik, Beasaingo Alkartasuna Lizeoan egin zuen urtebete jaioterriko ikaskideekin. Bai ikaslego eta baita irakaslegoarekin izandako harremanak konfidantzaz-koak izan zirela dio.

□ Rosarito Lasa, andereiñoa, Jakintza sortu zeneko aurrenekotako bi irakasleetako bat da. Pozik sentitzen da horrenbeste urtetan hor jarduteaz eta aurrera jarraitzeko ere motibazio handia duela dio. Irakaskuntza arloan ere Ikastola oso garrantzitsua izan dela gaineratzen du irakasle honek, "Ikastolak milaka haur eskolaratu ditu urteotan Euskal Herri osoan, nahiz eta botere ofizialek laguntza gutxi eskeini".

□ Juan Antonio Galparsoro, lehenengo Juntako kideak uste du Ikastolaren helburu gehientsuenak bete direla 25 urteotan. "Iada inork ez du zalantzan jartzen Ikastolan emandako irakaskuntzaren kalitatea", dio eta irakasleei bere eskerrona agertzen die hainbat alditan gurasoak konbentzitzen egindako ahaleginengatik, euskaraz izateaz gain, ikastea zela kontua argudiatuz.

Zertan egon daitezke ados



Euskal gatazka honen aurrean elkar-rizketa bidea azpimarratzen dugu bi taldeek. Zentzu horretan, elkartu gabe inoiz ere ezin daiteke elkarriketarik egon. Elkarrekin egon gara, baina uste dut aurrera ere bidea badugula egitekoa. Ikuspuntu desberdinak dauzkagu, dena den, Euskal Herriari eta gatazkari buruz. Baina, noski, eseri gabe ere, ez dago jarrera horiek hurbiltzerik. Beraz, Elkarriren aldetik inolako oztoporik ez dago eseri eta hitz egiteko, eta beren aldetik ere orain arte ez da egon oztoporik. Bi taldeen artean egon dira kontaktuak, baina ez gara gelditu ezer konkretutan.

Txema Auzmendi, kazetari ordiziarra, Elkarri-ko kide.

Elkarri eta Gesto por la Paz?



Badakigu zein diren Elkarri-ren ardatzak: elkarriketa, akordioa, eta gero errefrendo bat. Nola ez egon ados elkarriketarekin? Denok gaude ados horretan, elkarriketa beharrezkoa dela momentu guztietan esaten dugu. Akordioa da bigarren puntua, baina akordioa zertaz? Gure ustez gizarteari dagozkion arazoetan ETak ez daukala sartzetik. ETak bere problemak dialogatu beharko ditu instituzioekin, bere problemei dagokien soluzioa. Errefrendoaz, ez dugu onartuko ETA eta instituzioen arteko akordioa badago, guri, gizarteari, dagokigun akordioa bada. Juan Mari Tolosa, beasaindarra, Gesto taldekoa.

Foto eta testuak: "Arrasate Press", 189. zenbakitik

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN


Zirkuitua, trafikoa eta aparkamenduak antolatzen

KILOMETROAK 93 honen lan organigraman batzorde bakoitzak ditu bere lan bereziak, nahiz eta elkarren artean izugarrizko lotura izan. Batzorde guztiak dira garrantzizkoak, baina izenburuan aipatutako lanak zuzendu behar dituenak izugarrizkoa du eta gehiago Ordizia bezalako zulo batean hainbeste mila pertsona, kotxe eta bus sartu behar direnean. Garrantzi honek eraginda, urtarilean osatu zen taldea. Oiarzungo esperientzia jaso bezain laster gure errealitatea aztertzen hasi ginen, herri guztiak ez baitira berdinak. Batzordeak 3 lan alor ikutzen ditu. Ikus dezagun bakoitza banan bana.

Zirkuitua:

Batzorde honen lana izan da ahalik eta zirkuituaren diseinu egokiena egitea. Ezin dugu ahaztu milaka pertsona asko inguratuko zaigula eta hauei zirkuitu eroso, zoru ona duena eta ikusmira dotorekoa eskeini behar zaiola. Eraberean, 8 km. inguruko luzera izan behar du eta bestalde herriak duen ohizko bizitza ezin du neurrigabe oztopatu. 4 diseinu ezberdin egin ditu hilabeteotan Batzordeak, baina denei bilatzen genizkion hutsuneak. Azkenean, Arama gure zirkuituan sartzearekin guztiz aldatu ziren ordu arteko diseinuak. Hortik abiatu eta burututako diseinua da onartu dena eta ondoko planoan azaltzen zaizue. Honek luzera egokia du eta paisaia aldetik asko aberasten du.

Diseinu hau Kilometroak 93ko Batzorde Iraunkorrek onartu du iadanik eta Ordiziako Udalak ere bai. Orain Ertzantza ari da azterketa sakon bat egiten eta ondoren SOS-deiak eta Foru Aldundiak aztertuko dute. Zirkuitua, une batzutan herriko lurretatik igarotzen da, beste batzuetan jabego partikular batzuenetatik (Hauekin izan dugun lehen harremanetan jarrera oso ona ikusi dugu). Guk hautatutako zirkuitua hobetzeko obra batzuk egin behar dira. Presupostatuak daude eta harremanetan gaude Aldundi eta Udalarekin.



Ekainak 13a igandean, ibilaldira bat egingo dugu Zirkuitua ezagutzeko. Denok zaudete gonbidaturik, jantzi zapatilak eta aurrera! Oiangu hamaiketako.

Irudia: Mikel Miruri

Obra hauek, eginez gero, herrirako ere mesedegarri bilakatuko dira eta gure zirkuituaren zorua eta zenbait pasabide ziurtatuko ditugu.

Trafikoa eta aparkamenduak

Gai garrantzitsuak. Hainbeste mila pertsonen etorrerak kontu handiz eta xehetasun guztiz antolatzea eskatzen du; hala nola trafikoaren irteera, sarre- ra, aparkaleku, zentzu-aldaketak, e.a. Inguruko herrietakoekin harremanetan gaude eta definitzen ari gara kotxeen etorrera eta kokapena. Horretarako inguruko herrietatik hasi behar dugu seinalizapenak jartzen. Guzti honetan lankide ditugu Ordiziako eta Beasain- go udalzaingoa eta Ertzainak. Garbi dugu, egun horretan hemen jende asko izan arren, Ordiziak sarrera eta irteera ziurtaturik izango duela.

Aparkamenduen arazoa ez da txantxetako eta gehiago Ordizian. Gure helburua da milaka ibilgailuentzat

aparkaleku egokia bilatzea: 15/20.000 kotxe eta 350/400 autobusentzat lekua prestatzea. Ordiziak ez du berak bakarrik honelako aukerarik eta derri- gorrez inguruko herrietara jo behar: Beasain, Lazkao, Ola- berria, Zaldibia eta Itsasondo aztertzen ari gara eta lehen be- girada baten ondoren badakigu hauetan 11.000 inguru kotxe eta 350 bus aparka daitezkeela. Kartografia aztertuz eta apar- kamentu-diseinua eginez gaude oraindik.

Denok dakizuenek, zirkuitua areetan banatzen da. Geografi kokapenari eta duen zoruari be- gira, hauek aukeratu dira: 1.- Majori; 2.- Arama; 3.- San Juan; 4.- Txakurtxulo; 5.- Goierri; 6.- Oiangu. Hauetatik bik, belar- dian daudenez, zoru biguna dute eta beste lauena ormigoizkoa da. Majorikoa nahiko berezia izango da. Bertan haurrentzat parke bat jarriko dugu.

Osasun eta zainketa zerbitzua aztertu dugu eta Gurutze Gorria eta DY Aren eskeintzak kontutan izanik, Gurutze Gorriari eman zaio lan honen ardura. Lanean dihardute gure batzordeetan.

“Irratizaleak” taldea ere lanerako prest agertu eta gurekin ari dira lanean. Komunikazio alorrak ere badu bere ga- rrantzia.

Ezinduek ere gogoan: Ezinduek ere Kilometroak 93 honetan parte hartzeko gogoia adierazi digute. Hori dela eta bildu gara eurekin eta gure nahia da eurentzat ere egokia den zirkuitotxo bat antolatzea.

Laburtuz

Lan zabal eta korapilotsu honen oi- narriak jarrita daude eta taldekideen harremanak eta lanerako gogoia hobe- zinak dira. Izan ere, Kilometroak beza- lako festa handi batek jendea erakarri egiten du, animatu. Zu ere anima zaitetz eta animaezazu zure ingurua eta denon artean orain arteko markak denak hau- tsiko ditugu. Zatoz gurekin!

Kilometroak 93 (Trafiko Batzordea)

Ba al dakizu...?

□Beasaingo Udal Aurrekontua 1.295 milioietakoa izango da aurtengorako. Udal Batzarrean onartu zen EAJ, EA, EuE eta PSE alde eta HB abstentzioaren aldeko zirela. Inbertsioetarako 300 bat milioi eta pertsonalerako %26a aurreikusten dira.


□Aralar, parke naturala laister. GOIERRITARRAren 29.ean genion eta urte bukaeran onar liteke. Jose Mari Aldanondo arduradunak dioenez, zenbait errezelo badira oraindik Aralar parke naturala bihurtzeak eragindakoen artean, baina harrera ona izaten ari da proiektua. Dioenez, ez dute erreserba ikaragarri bat sortzearekin amets egiten, zenbait inbasio kontrolatzea edo galeraztea da asmoa. "Urteak daramatxagu ekinez. Ura eta argia eramandu dugu bordetara, e.a. Bai lehen eta bai orain, ekintza guztiak zonaldea bere berezitasunarekin gordetzeko helburupean egin dira". EHNEk zalantzan jarri du biharko Aralargo Parke Naturalaren zirriborroa.

□"Goierriko Ekimena", Goierriko Garapen Agentzia sortu da eta Goierriko Udaletan onartzen ari da. Bestalde, maiatzaren 25erako, erredakzio hau ixterako, Goierri Lanbide Eskolak sare publikoan sartzea edo ez sartzea erabakita euki behar zuen. Beren menpe ere badagoenez eskola hau, Goierriko Udalek baiezkota erabaki dute. Oraingo statusa mantentzea, alegia, Goierriko Herrien Ekintza Fundazioaren baitan gelditzea. Bertan gelditzearen alde dago Eskola bera.

□Aspaldiko partez Hauteskundeak gainean ditugu. Hona hemen zenbait alderdi politikoetako hautagai goierriarrak: Jose Luis Zaldia beasaingarra (EAJ), Begoña Garmendia ordiziarra

eta Alberto Aldasoro idiazabalzarra (HB) eta Patxi Baztarrika ataundarra (EuE).

□Orain hurrengo Gabiriako Andres Goya jaunaren heriotza lau haizeetara zabaldu berri da. Herri horretako Alkatetza izan zen 70.eko hamarkadan batetik, eta, bestetik, dentista ezaguna Beasaingo anbulategian, e.a. Hurrengo hilean emango dizuegu horren berri Gabiriako kronikan.



□Gipuzkoar etxe funebreen eta Donostiako Udalaren arteko enfrentamendua areagotu egin da. Lurraldeko ehorts-etxeak manifestazio bat burutu zuten Donostiako kaleetatik, udal monopolioaren aurka. Orain dela ez asko arte, Donostiako eritetxeetan hildakoak herriratzea dirutza galanta kostatzen zen, behin GOIERRITARRA salatatu genuenez. Funerariak beren aldetik hasiak zeuden hildakoak garraiatzen, baina isunak jartzen hasi zaizkie Donostiako Udala eta orain zenbait auto enbargatu nahi dizkiete.

□Azken momenturarte ez dugu jakin ze postura hartuko zuten Goierriko ikastolek. Lazkao eta Ordiziakoak sare pribatuan gelditu dira eta Beasaingoa publikora pasa da.

□Gezurra badirudi ere, Xabier Azurmendi zegamar historigileak "DV-Zabalik"i aditzera eman dioenez, San Adrianen bi galtzada daude: galtzada famatuaren ondoan bigarren bat bada, bestea baino zaharragoa izan litekeena, baina artzaiez gain inor gutxik ezagutzen duena.

□Nekazal turismorako etxe berri bat ireki da Lazkaomendin. Lizargarate baserriko familiarena da eta 140 m2 ditu, bi pisutan banatuta. Bestalde, Aia auzorako aterpe bat eraikiko da. Besteak beste, mediku kontsulta pasatzeko erabiliko den lokal bat, honen ondoan teilatupe bereko gune ireki bat eta hauen azpian kokatuko litzatekeen pilotan jokatzeke nahiz beste edozertarako balioko duen toki batez osatutako eraikuntza baten proiektua egitea onartu du Ataungo Udalak.

□Obralan gehiago: 9.000 milioietako inbertsioak egin bide ditu "Renfe"k gure inguruetak trenbideak konpontzearen. Paperaren bilketa selektiboa egitekotan da Sasieta Mankomunitatea eta horretarako proiektuaren borradorrea egin da dagoeneko.

□Orain dela gutxiarte ohizko gidatzeko karneta nahikoa zuten kamioilariak, baina baldintzak gogortu eta errepidean garraio-lanak egiteko gaitasun profesionala erakutsi behar da titulu baten bidez. Ordizian bertan "Soloza-bal" autoeskolan ematen dira horretarako ikastaroak. Iaz 12 ikasle goierritar izan zituzten eta denak gainditu zuten froga. Meritu handia, orokorrean titulua jaso zutenen batzuek %20a izan baitzen. Aurten 13 ikasle (aipagarria: 2 emakume tartean) ari dira ikastaroan. Ea joandako urteko emaitza berdinak suertatzen diren!

ARRANO

Taberna

Ogitartekoak eta Pintxoak

Kale Nagusia, 12 Tel. 88 74 47 BEASAIN

ARALAR

PAPERDENDA

- Bulegoko tresneria
- Ikastolako Materialak
- Idazteko makinak
- Fotokopiak
- Koadernaketak

J.M. Barandiaran Enparantza, Tel. 88 12 40 20240 ORDIZIA

“Goierriko biztanleria (1860-1986)”

Ikerlan honetan, Goierriko biztanleria azken 125 urteotan jasandako aldaketa demografikoak azaltzen ahalegindu gara. Aldaketarik handienak, dudarik gabe, industriguneetan gertatu dira, eta gainera, gune hauek eskualdeko garapenaren ardatz bilakaturik, Goierri osoaren norabidea baldintzatu dute.

Aldaketa hauek kontuan hartuz, Goierritar biztanleriaren bilakaera hiru unetan bana daiteke:

1. engo fasea, industrialitze-hasieratik mende honen erdialderartekoa da. Garai honetan, Goierri, industrializazioa finkatuta gelditu zen, baina, oraindik honek eragindako aldaketa demografikoak ez ziren oso sakonak izan. Une honetako berezitasunik nabarmenenak hauek izan litezke: biztanleriaren hazkunde apala, emigrazio-gunetik inmigrazio-gunerako aldaketa, oraindik garrantzi handirik ez duen nekazal exodoa (ondorioz, garai horretan, eskualdean biztanleriaren banaketa nahiko orekatua da), eta industri sektorearen nolabaiteko nagusitasuna nekazal sektorearen kaltetan.

2. fasea, 50. hamarkadatik aurrera hasi zen eskualdean, 2. Industri Iraultza hasi eta ikaragarritzko hazkunde demografikoa ematen denean, eta 1970-75. urterarte luzatu zen. 2. une honetan eman ziren aldaketa demogra-



fikorik sakonenak: inmigrazio jendetsua industriguneetara, jaiotza-tasen gorakada, biztanleria gaztetzea, hiritartzea, eta industriguneen erabateko lehentasuna nekazalguneekiko. Aldaketa demografiko hauek industriguneetan eta beraien inguru hurbileko udalerrietan eman ziren batipat. Nekazalguneetan, berriz, alderantzizko bilakaera gertatu zen: 60. eta 70. hamarkadetan, nekazalgune hauetan nekazal exodoa areagotu zen, biztanleriaren zahartze eta despopulakuntza ekarriz. Ondorioz, eskualdeko biztanleriaren banaketa erabateko desoreka sortu

zen.

3. fasea 70. hamarkadan hasi zen, krisialdi ekonomiko latz batean murgilduta eman zen pentsamolde eta ohi-tura-aldaketak eraginda. Egun, oraindik fase honen barnean aurkitzen gara esan behar. Krisi ekonomiko hau gogorra izan da Goierri, bertako industriaren metal sektorearekiko polarizazioa dela eta. Etapa honetako berezitasunik aipagarrienak ondorengo hauek lirateke: gure eskualdea biztanleria galtzen hastea, migrazio-saldoen negatibotasuna, jaiotza-tasen jaitsiera bortitzak ekarri duen biztanleriaren zahartzea, eta, maila apal batean bada ere, biztanleriaren bilketa-maila gutxitzeko joera nabaria. Azkenik, azpimarratu beste datu bat: Gipuzkoan, lurralde aurreratuetan bezala, fase honetan zerbitzu-sektorearen nagusitasuna eman den arren, Goierri oraindik ez dela horrelakorik gertatu.

Dena dela, aldaketak ez dira biztanleriaren bilakaera eta banaketan bakarrik gertatu. Biztanleriaren egitura ere, azken 125 urteotan eskualdeak aldaketa nabarmenak izan ditu. Hauetako garrantzitsuenak: aipaturiko base-ritarren kopuruaren jaitsiera eta langileriaren igoera (oraindino zerbitzu-sektorearen nagusitasuna ez da eman), biztanleriaren etengabeko zahartzea eta etorkin-multzo arrotza; eta baita



IRVROK S. L.
ZERBITZU OFIZIALA




N-1 Madrid-Irun Errepidea
Tfnok: 88 51 50 - 88 51 54

OLABERRIA

**TAPIZ ETA GAINEZTADURA
TAILERRA**

B i O K, c. b.



Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnok: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN



Giro on eta jatorra

Tlf.: 88 20 23
Iturrioz Kalea, 11

BEASAIN

IBAI - ONDO



**ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Tailer eta Erakusketa:
Antzizar Auzoa, z/g.
Telef. 88 05 43 BEASAIN

beste hauek ere: irakaskuntza-mailaren gorakada eta bereziki eskualdeak jasandako deseuskalduntze bortitza.

Beraz, gaur egun, Goierri demografikoki egoera kaxkarrean azaltzen zaitu, eta industria krisian dagoenez, eta industri eskualdea izanik, ez da atera-biderik ikusten. Goierriko biztanleriaren hazkundera garapen industrialak ekarri zuen, eta egun, eskualdea, hiritartua eta industrializatua den aldetik, gogor ari da krisia jasaten.

Dena dela, Industri Iraultza ondoren sortu zen gizarte industrialean, biztanleriaren bilakaera eta banaketan, industria faktore erabakiorra edo ezinbestekoa izan baldin bada, jadanik murgildurik gauden gizarte postindustrialen, badirudi biztanleriaren bilakaera eta banaketa ez daudela erabat industriaren kokapenarekin lotuta.

Gizarte postindustrialak, bere berezitasunak direla eta (zerbitzu sektoreen nagusitasuna, aisialdiaren hedapena, natur zaletasuna, deskongestioa, bizitza-kalitatearen garrantzia, nekazal-turismoa, e.a.), aurreko gizarte industrialaren desorekak eta gehiegizko bilketak konpontzeko gai den sakabana-tuagoa eta orekatuagoa den biztanleriaren hazkunde eta banaketa berri bat eskaintzen digu. Industriaren kokapenak erabat mugatzen ez duen banaketa-joera berri bat. Beraz, badirudi etorkizunean industriaren kokapena ez dela demografikoki hain erabakiorra

izango.

Eta egoera berri honek eskualdean honez gero izan du eragina, bertan biztanleriaren kontzentrazio-maila gutxitzeko joera nabaria bait da. Honela, 2.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriek biltzen duten biztanleriaren hainbatekoak, neurri txikian bada ere, gora egin du azken urte hauetan: 75ean %15,1, 86an %16,8 eta 91ean (behin-behineko datuak) %19,1.



Goierri eskualdeko bilakaera demografiko eta ekonomikoan, eragin duen faktorerik garrantzizkoenetakoa, funtsezko komunikaziogune izatea izan da. Bere kokapen geografiko bereziak, komunikabideen alorrean leku garrantzitsua eman dio Goierriari. Euskal Herriaren bihotz-bihotzean (Do-

nostia, Iruñea, Bilbo eta Gasteizko bi-deen gurutzegunea) finkaturik egoteak, nola iragan denboran hala gaur egun, zerikusi handia izan du eskualdearen dinamikan. Gogora dezagun, zer nolako garrantzia duten ekonomian, urruntasun- eta komunikazio-arloek. Goierri, bide-sarea eta trenbidea bitarteko direlarik, E.H. osoarekin eta Frantzia eta Espainiako Estatuarekin lotu izan da. Besteak beste, N-1a eta Madril-Irun trenbidea bitarteko. Beraz, ez dago esan beharrik zer-nolako garrantzia izan dezakeen etorkizunean funtsezko potentzialitate honek. Azpiegiturak ezinbestekoak dira, beraz.

Ondorioz, eta Goierri eremu marjinal bihur ez dadin, eskualdearen garpenerako, errepide eta trenbide-zerbitzuaren azpiegitura gaurkotzea eta hobetzea funtsezkoa da. Hau honela, Bilbo eta Donostia lotu behar dituen Abiadura Handiko Trenarekiko lotura, eta batipat, lehen mailako ardatz bihurtu den Beasain-Durango Errepidea (GI-632), eta eskualdearen oinarritzko egituraren ardatza den N-1ren bikoizketaren azken zatia (Etxegarate) lehenbailehen aurrera eramateak ezinbestekoa dirudi.

 **Arkaitz Arruabarrena.** 1967, beasaindarra, Historian lizentziatua. Egun, Leioan Politika Zientziak eta Soziologiako 3. mailako ikasle.



Kolorezko argazkien errebelatua ordu betean
Tlf.: 88 04 78 Faxes: 88 04 78
Nafarroa Etorbidea 1. BEASAIN



SOLOZABAL
AUTOESKOLA
PERMISO GUZTIAK!

- Motorra
- Autoa
- Kamioia

- Trailerra
- Autobusa
- Erremolkea

Etxezarreta 5 (Herri antzokia parean)
Tel.: 16 12 21 - ORDIZIA

ERLOJUTEGIA BITXITEGIA
GARMENDIA

Nagusia, 20 tel. 88 15 32 BEASAIN



Elosegi, 13 • Tfnoa: 16 10 16
20210 LAZKAO

“IAZ ERE, TA AURTEN ERE, SAN JUAN DALA...”

Emeterio Sorazu: “Eguzkia izan da oinarritzko euskal jainkoa”

Uda gainean dugu, “*San Juan, San Juan heldu da, sorgin begia galdu da, galdua bada galdu bedi, sekulan agertu ez baledi...!*”. Herri gehienetan dantza egiten da su ondoan. San Juan gau magikoaren inguruan sinis-

men eta ohitura ugari daude, baina gehienak galduak. Gure kulturaren sustraiak eta usadioak ezagunak ditu Emeterio Sorazu Zaldibiako erretoreak. Berari egin diogu galde.

Emeteriok dioenez, euskal kultura eta sinismenen sustraiak aztertzen baditugu, argi agertzen da eguzkiak euskaldunon artean betidanik izan duen garrantzia. Eguzkia bizitzaren adierazle eta munduaren oinarritzat hartu izan da beti. Mila eta milaka urte atzera jotzen badugu, gure aurrehistorira, honen arrasto ugari aurkitu genitzazke. Orain dela 30.000 urte, gizakiek ehizez bakarrik bizi izaten zirenean, urtean 10 hilabete negu zituzten eta 2 besterik ez udaberri. Gizaki hauek kobazulo naturaletan bizi ziren eta hildakoak koba hauen sarrerako eskubialdean lurperatzen zituzten beti. Honek eguzkiarekin zer ikusia duela-koaren ustea dute askok eta askok.

Euskal lorea, Eguzki lorea

Denboraren poderioz eguraldia epeltzen joan zen, geroz eta luzeagoak ziren udaberriak. Gizakia artzantzan hasten denean, orain dela 3.000 urte inguru, esan daiteke neguko eta udako solstizioen bereizketa egiten hasi zirela. Hor hasten dira batez ere eguzkia jainkotzat hartzen, oso nabarmena da ematen dioten garrantzia. Batez ere hildakoak hilobiratzen zituzten moduan antz eman dezakegu. Adibidez, trikuharrien azpian lurperatzen zituzten gorpuen aurpegiak, beti eguzkiari begira ipintzen zituzten, eta zutarriak (menhirrak) itzal gehien sortzen zen lekuetan daude jarriak.

Honetaz gain garai haietako koilare eta bitxi ugari aurkitu izan dira eguzkiaren ikurrarekin. “Eguzkia zegoeanean, bizitza, berotasuna eta argia zutela ikusten zuten; hau joatean berriz, hotza eta iluntasuna zetorkien. Hau dela eta eguzkia euskaldunen oinarritzko jainkoa da. Etxetako ateetan



eguzki loreak jartzen dira ontasuna adieraziz, euskal errito gehienetan ardatza dugu”. Lehen aipatu bezala, aintzinakoek urtea bi zatitan banatu zuten. Neguko solstizioan, abenduan ematen dena, eguna luzatzen hasten da, argia lurrean lehen aldiz azaldu zeneko unea oroitzen da, gauetik ihes egiteko erri-toak burutzen dira...

Urteko egunik alaiena

Udako solstizioan, esaten da, ekainak 24ko goiza, urte osoko alaiena dela. “Eguzkia belarretako ihintzan isladatzean sortzen dituen dizdirak direla eta, egun honetan eguzkia dantzan irtetzen dela esan ohi da eta urte osoz osasuntsu mantentzeko oso ona omen da ihintzaz hezetutako belarretan, bilutsik, alde bakoitzeko hiru buelta ematea. Hankutsik ibiltzea ere oso ona omen da”. Egun honetan altuera han-

dienera iristen da eguzkia eta bere eragina urte osoan zehar baino askoz handiagoa omen da. Kristau erlijioak errito hauei San Juan Bautistaren izena jarri zion. San Juanek bizitzari bideak zabaldu egiten omen dizkio. Dena dela, gau magiko honetan, bai kristauak eta baita kristau aurreko diren sinismenak ere bateratu egiten dira. Udako solstizioaren ospakizunetan gizakiak oinarritzko dituen hiru elementuak agertzen dira batez ere: sua, ura eta fruituak.

Sanjuan-suak

Suak, San Juan bezperako gauean pizten dira. “Gaur egun edozeinek pizten ditu, baina lehen herriko pertsona-rik zaharrena izan behar zen su piztailea, bera bait da gorputzean eguzki gehien damarrena. Sute hauek ahalik eta altuenak egin behar ziren eguzkiak ikusi ahal izateko. Honetarako erregai bereziak erabiltzen ziren lehen, orain berriz edozer gauzakin egiten dira”, dio Zaldibiako apaizak. Su hauek herriko plazan, etxe aurrean

“Herriko zaharrena, eguzki gehien zamarrena, zen lehen su-pizlea”

edo bidegurutzetan egiten ziren. Hildakoak ere ez zituzten ahazten, hauek eguzkitik hurbilago bait zeuden. Guzti honekin eskerrak ematen zaizkio eguzkiari eta dantzen bidez gurtu.

Bestalde su honek eta baita bere keak ere ezaugarri sendagarriak omen ditu, bere gainetik salto egitea ona omen da azaleko gaixotasunak sendatzeko.

"Antzinean, urte horretan ezkongai ziren mutilak su gainerik salto egiten zuten, horrela nesken aurrean beraien trebetasuna erakutsi nahi izaten zuten. Zenbat eta su altuagoa saltatu, gero eta ausartagozat jotzen zen mutila".

San Juan gaueko askotan azalzen edo aipatzen dira sorginak. Emeterioren esanetan, sorginak ez lirateke gau honetan azaldu behar. "Egia esan, ez ziren sorginak, ez zuten deabruarekin pakturik. Garai hartako Elizak eta jauntxoek ez zuten euskaldunen ohitura zaharrak errespeta-tzen jakin; hau dela eta, zenbait jende gauean bildu ohi zen botere hoiei mesprezu egin eta beraien ohiturekin jarraitu ahal izateko. Ez ziren sorgin gaiztoak, beraz". Sorginak neguan bakarrik biltzen ziren, udako gau motzetan ez bait zuten astirik izaten. Beraz, zenbait lekutan bere aurkako oihuak botatzen dira, beraien bilkurak neguarekin batera desagertzen bait dira.

Urak eta fruituak

Urak ere, garrantzi handia du udako solstizio honetan. Zenbait iturriko ur sendagarriaren eragina handitu egiten omen da gau honetan. Jende asko joaten zen ur hauetan bainatu edo bustitzera, hau eginik azaleko gaixotasunak, sarna eta tiña sendatu egiten omen ziren. Emakume antzuak iturri hauetara joaten ziren jaio berrien erropatxoak garbitzera, horrela berauek ere haurdun geratuko ziren itxaropenarekin. Hainbat herriko plazetan hiru iturri egoten ziren, ezaugarri magiko batzu zituztela. "Eskuineko iturritik abereak edaten zuten, erdiko uretatik gizakiak edaten zuten urte osoan zehar. Ezkerrekotik San Juan egunean edaten zuten soilik. Urte horretan lehen aldiz hilekoa jeitsi zitzaizen neskek eta gizondurik ziren mutilek edaten zuten ur hau, baita ezkongai zeuden emakumeak, emankorrek izan zitezkeen".

Fruitu eta belarrak ere badute bere lekua ospakizun honetan. Sendabela-

Sorazu, apaiz eta maisu

Emeterio Sorazu Getarian jaio zen 37.ean. Bere lehen ikasketak egin ondoren, apaizetarako ikasketak burutu zituen Saturraran eta Donostiko seminarioetan. Euskal Herri-kanpo ere ikasketak egiten ditu. Kurri-

rrak askoz ere hobeagoak omen dira gau honetan. Lehen esan bezala eguzki

kulum luzea berea, ikastetxe ugari- irakasle izana da eta baita Euskal Antropologiaren ikertzaile aspergaitza. Gaur egun Zaldibiako Parrokian dagoen bezala, beste zenbait herrietan ere aritu izan da apaiz. Bibliografia zabala du, erlijio eta antropologia gaietan.

ko ohitura zegoen laguntasuna adierazi nahian. "Horrek haserre ugari sortzen zuen, batzutan norbaitek beretzako gordetzen bait zituen fruiturik ederrenak eta bizilagunari kaxkarre- goak oparitzen zit- kion". Mutil gazteek, bazuten nesken leihotetan lorak jartze- ko ohitura. Neska poli- ta zenean lore ederrak jartzen zitzioten. Itsu- sia bazen ordea, gardu edo kalabaza bat jar- tzen zitzaion. Hemen aurkitzen omen da andregaiak apaintzeko edo lore sorta bat opa- ritzeko ohituraren ja- torria. Ekzemak sen- datzeko oso aproposa omen zen egun hau.



loreak jartzen ziren etxeetako ateetan. Aurreko urtean bedeinkatutako iratze eta belarrak gorde egiten ziren, gau honetan erre eta bere errautsak etxean eta lurretan botatzen ziren. Hau eginik etxea babestu eta lurak emankorra- goak bide ziren. Herri askotan zuhai- tzak ipintzen dira plaza erdian herri

"Zenbat eta su handia- goaren gainerik salto egin, orduan eta ausar- tagotzat jotzen zen mutil ezkongai"

osoa babesteko; gaur egun ere ipintzen ohi dira eta askotan joku desberdinak egiteko erabiltzen dira.

Sanjuan egunean bizilagunen artean lotutako fruiturik ederrenak oparitze-

"Zuhaitz gazte baten enborra zutika moztzen zuten. Enbor ebakiaren bi al- detan izen berdina zuten bi pertsonak jartzen ziren, erdian berriz gaixoa. Al- boetako bi pertsonak gaixoa elkarren artean pasatzen zuten esanez: 'Tori Juan, ekarri Juan'. Hau hiru aldiz egi- ten zuten. Ondoren zuhaitzaren bi za- tiak berriz ere elkartu egiten ziren. Lehortzen ez bazen, gaixoa sendatu egiten zen".

Industri eta asfalto giroko zibilizazio eta herri honetan, "errito guzti hauek aintzinako kultur pagano eta magikoen gauza bezala hartzen dira. Gaur egun- go gizakientzat dirua eta lanaren bo- terea da gauzarik sakratuena". Eme- terio Sorazuri entzunez luzaro egon daiteke, antzinako euskal kulturen era- bat bustirik dagoen pertsonaia da. Uda eta neguko solstizioari buruzko lan be- rri bat egiteko asmoa duela esaten digu agurtzerakoan eta hala espero dugu.

**Amaia Balerdi
Argazkiak: Dioni**



Arraultzaritza eta salmenta

Bikuña 19 eta Gurutzeta gaina
IDIAZABAL
Tel.: 80 12 59 - 80 10 77
Faxa: 80 14 76

GORBEL HAIZEA

DISEINU GRAFIKOA

G.H.

ETA PUBLIZITATEA

DISEINU GRAFIKOA ETA PUBLIZITATEA

Logotipoak, katalogoak, buzoiketak, ilustrazioa eta Liburu-irarketa.

ERROTULU ETA ARGIZKOAK ibilgailuetan,
dendetan, pabiloietan, industrialak norbere diseinuarekin

SERIGRAFIA pizkailuak,
boligrafoak, eta publizitatezko edozein motatako gaietan.

ORDIZIA-Tfnoa: 16 12 87 - LEGAZPI-Tfnoa: 73 43 61

TXANOAK POLOAK
KAMISETAK IZERDI-ZAPIAK

Festetako zapiak

KAMISETAK


ENPRESETARAKO

DENDETARAKO

NORBERE ANAGRAMAREKIN

OIHAL - PUBLIZITATEA

OBRATAN DAUDEN BAINUGELAK JANZTEN ESPEZIALISTAK



HARRIA GRESAK


BERRIKUNTZA OSOAK

Tfnoa: 88 54 66
BEASAIN

Nafarroa Etorbidea, 45

- *Igeltseritza
- *Linterneritza
- *Elektrizitatea
- *Arotzeria
- *Arotzeria metalikoa
- *Pintura

- *Dekorazioa
- *Obra amaierako-garbiketak
- *Konpromezurik gabeko aurrekontuak



ZERBITZU OROKORRAK

ERRIKUNTZA, MUNTATZETA MANTENIMETUAK




- * Karakol, zeharkako eta abar eskilarak.
- * Entreplanta estrukturalak:
 - ⇒ Igogailu edo montakargak.
 - ⇒ 2.000 Kgmrarteko mota guztietako pluma besodunak.
 - ⇒ 3.000 Kgmrarteko monorail eta puente gruak.

Ibabe Industrialdea, 7
LAZKAO

Tfnoa: 88 86 59
Faxa: 16 00 34

KALITATEZKO ELIKADURA, OSASUNAREN OINARRRIA



GOIHERRIKO MENDI - NEKAZARITZA ELKARTEA
SANTA MARIA KALEA, 4 - TEL. 88 86 77 88 17 93 - 20240 ORDIZIA

*Baserritar: egin erakargarri zure produktua.

*Erosle: bertako produktuan dago zure aukera.



NEKAZALTURISMOA

Xabier Sarasola, "Xasa", Gasteizen euskalgintzan

Duela ia 35 urte jaio zen Itsasondon Xabier; gogoan ditu oraindik txikitako urteak eta lagunak: Joxe Mari Lete, Jexux Mari Iturrioz, e.a. Sarasola Salegitarra aski ezaguna izan da egon ohi den lekuetan, eta adineko jendea berarekin oroituko delakoan gaude. Gazteagoek, bera bezala Gasteizen dagoen bere arreba Gurutzegatik ezagutzen dute oraindik. Antza kontua.

Itsasondotik Beasaina 11 urterekin zeharrraldu zen "Xasa", Istitutuan ikasi eta bere garaian mogitu izan zen "Gaztedi"n, La Salleko gazteen klubean, eta hortik zehar: EGAM eta EIAren hasieretan. Gero etorriko zen kontaktua galtzea. *"Horrez gain, koadriletan mogitzen zen gauzea, koadrila handiak izaten ziren normalean, gurea ere 40koa izango zen"*.

Orain ere etortzen da noizean behin Beasaina, festetan adibidez, gertatzen da Gasteizko "Ika" Euskaltegian orduntxe izaten dutela lanik gehien. Beasaingo giroa aldatua dakusa goierritarrak. Gurasoengana etortzen da eta "Saioa" tabernatik pasatzen da, erreferentzia-lekua dauka Luismarena. Hor biltzen da lagunekin eta hor enterratzen da hemengo gorabeheretaz.

Goierri Lanbide Eskola istilutxu batzu medio utzi eta Zumarragan bukatu zuen maestria. Soldaduska bete Ceutan



(*"intsumisioa zailagoa zuan orduan!"*) eta Gasteizera joan zen peritotza egitera. Eta neskalgunarengana. Kontua da AEKn jarri zela lanean, hainbat bizkaitar eta goierritarrekin batera, *"Araba kolonizatzen"* eta euskalduntzen ari ote ziren susmoarekin. *"Gero ikusi bertakoek zer ahalegin egiten dituzten euskara ikastearren eta kontentu. Helburu bezala ere hori ezarri genian: bertako irakasleak bultzatzea"*. Horretan bidea egin dutelakoan dago.

Prest zegoen beretik emateko eta 8 urte egin zituen han "Ika" sortu arte eta gerora beste 4, 12 denera. Denbora horretan makina bat jende, bai bertako eta bai goierritar, gazteago, ezagutu du: euskararen kontrako haizeak, UA e.a. egon arren, *"hemen oso harrera ona izan diat, urteak egiten ditu jendeak*

euskaltegietan eta gero ere harreman onak izaten jarraitzen dugu". Lagun piloa du bertakoa eta ez du ezer inori aurpegira botatzeko.

Gainontzean, euskararen aldeko mogimenduen zurrumbiloan ibili ohi da etengabe Sarasola, militante, *"Bagare"n*, han eta hemen. *"Ikusten duk gauza asko aurrera doazela, nahiz eta gehiago ere egin zitekeen. Ahal dena egiten da, dagoen jendearekin eta urteetan diferentzia nabarmena ikusten dut Gasteizen: euskararen aldeko jarrera hobea, gehiago entzuten da, saiatzen gara ghettoa apurtzen eta ekintzak egiten kalean, dugun bitarteko apurrekin, jende oso ezberdina gogoz dator euskaltegietara, ez beharragatik..."*.

Dakigunez, euskara ikastea luze egiten da, irakastea aldapa gora, zenbait baldintzetan... Eskertzeko moduko lana iruditzen zaigu Xabier eta bera bezala Bitorian lanean aritu diren hainbat goierritarra. Nahiz eta izen-abizenak dagoeneko ahazturik euki, gogoratu nahi lituzke, *"Iurreko neska bat, Beasaingo Nekane, nire arreba bera, Xanti Irizar, Lazkaoko jende bat ere, ezizenak badakizkit..."*. Ezizena oso ohizkoa baita Gasteizen. Onena bera izan litekeen ustea ez izan arren, *"Xasa"* jarriko genuke horietako askoren esponente gisa.

Mikel Aramendi

Leire Olaberria ikaztegiatarra, 100 metroak tximistan

Olaberriatarrenean beti izan da korrikarako giro. Birraitonak aire batean egiten omen zuen herritik, *"Madril txiki"*tik Azpeitiarainoko buelta oinez. Aita ere ibilia du lasterka, herri txikitako krossetan eta apustu kontutan. Ona zetorren ahizpa, baina aspertu egin zen. Leirek adorez hartu du atletismoa eta nekez egingo du atzera. Astean lau egunetan, bi orduz, entrenatzen da. Ez du gehiegi pentsatzen; *"Lehenbait lehen bukatu behar du"*, esaten dio bere buruari, aitortu berri dionez *"Egunkaria"*ko Alazne Iturriotzi.

11.86 marka egin zuen Leire Olaberria 16 urteko ikaztegiatarrak 100 m.-tako proban. Espainiako plusmarkista berria dugu kadetetan eta 13. to-



kian jarri da rankinean; halaber, Gipuzkoako markak ere apurtu ditu eta hainbat kirol kazetarik *"Gipuzkoako*

Gazela" izendatu dute dagoeneko. Bazekien bere marka, 12.10ekoa, hobetuko zuela, *"Baina ez nuen espero hainbeste jaitea eta sorpresa on bat izan da"*, azaldu du. Zortea aintzakoizat izan beharreko faktorea dela uste du atleta gazteak.

Krossa, mendiko bizikleta, dualoia,... beti aritu izan da zerbaitetan, baina atletismoa berria du Leirek. Urte t'erdi besterik ez darama horretan Tolosan; txiripaz hasi zen gainera, Eskolarteko Olinpiadetan konturatu zen aurrera egiteko balio zuela. Denboraldia uste baino hobeto hasi du eta hobeto bukatu nahiko luke. Atlantako Joku Olinpikoak aitatzen zaizkionean ez du jakiten zer esan. *"Edozein atletaren ametsa izango litzateke, baina horretarako urteotan markak hobetu behar-kotitut. Gero ikusiko da!"*.

Ataun, ezezagun hori

Aurrerantzean GOIERRITARRAn gure herriak izango duen txoko honetan, Goierri bailaran interesa izan dezaketen Ataungo berri, hizpide edo eztabaidak azaltzeari ekin diogu. Lehenengo hau, hurrengo zenbakitik aurrera emango ditugun berri hoiek sortuko dituzten norbanako eta elkarte desberdinen azaleko gain-begirada bat besterik ez da.

Ataungo herriak 1.688 biztanle ditu, aurtengo lehen eguneko erregistroaren arabera. Herria, hiru auzo nagusitan "sakabanatua" dago, San Martin, San Gregorio eta Aia, eta hoietako bakoitzak bere sen propioa baduela ere esan daiteke. San Gregorio eta Aian, Auzo Batzarrak bildu izan ohi dira gaurregun ere, garaiean garaiko arazoak aztertze-ko.



Hiru sail nagusi azpimarra daitezke eguneroko bizitzan duten eraginarengatik: *eskola, udaletxea eta elkarteak*. Ataunen dagoen *eskola* bakarra, Joxemiel Barandiaran Eskola da eta Goierriko herri eskolen arteko bat da. Une honetan, 150en bat ikasle eta 13 irakasle ditu.

Udala, 4 alderdi-tako 9 zinegotzik osatzen dute: HBko 4, EAko 3, eta EAJko eta EUEko banak. EA, EAJ eta EUEren arteko hitzarmenez, EAKoa da alkate, eta 3 alderdi hoien artean banatuak dituzte 5 batzordeen ardurak. Hazienda, Kultura, Obrak, Ongizate eta Mendia dira batzorde hoiek.

Era askotako **elkartek** dute bizia herrian eta oraingoan aiatu baizik ez ditugu egingo: Agauntza ziklo-turistak, Aizkoate, Artadi, Atsedentoki, Erbia, Euskararen Aldeko Batzordea, Haurkide, Kristau Gazteria, OARGI Troskaeta, Odol Emaileen Elkartea, Parrokiak, Pelotazale eta Pelota Kluba. Tarte honetan sar genitzake alderdiak, bestelako erakunde politikoak, eta orokorrean, Ataungoak bakarrik ez diren gauzetan lanean ari diren bestelako talde guztiak.

Hiru adar nagusi hoietatik, gauza hauek nabarmen ditzakegu: Nondik (OARGI), Eguzki Berri (Eskola) eta Bizirik (HB) aldiakariak; Otsoa irratia (Eskola); Auzoeta udal kiroldegia; udal liburategia; eta unez uneko ekin-tzak: Kultur asteak, auzoetako festak, ikastaroak, kirol txapelketak, zine saioak eta beste mila gauza.

Gainontzekoan, hor daude idazleak, trikitilariak, bertsolariak, kirolariak, intsumisoak... eta bestelako pertsona publikoak. Guzti hauetaz eta gehiagotaz aritzeko parada izango dugu,



GOIERRITARRAK aurrera egiten duen heinean.

Marron, Everesteko tontorrean!

Joxe Ramon Agirre Begiristain "Marron" aietarrak, Everesteko gailurra egitea lortu zuen maiatzaren 16an. Arabako espediziozko partaide izan den honetan, azkeneko momenturarte kezkatu izan gintuen guztiok, bere osasun egoera onaren berri baguen ere, besteenaz arduratu behar izanak saialdirako ia epea kanpo utzi bait zuen. Hiru aste pasatu dituzte 8.000 metro-tako altueran eta hiru hilabete etxetik kanpora. Ataungo herriak egindako ongi etorria bera ahaztuko ez badu ere, Udalak oparitutako oroigarri bat ere izango du, egindakoaren onespene eta eskertze publikoaren seinale. Zorionak Marron, eta ongi etorri!

 Joxe Begiristain



JATETXEA
Juan Rubio

HIPER OLABERRIA

Eguerditan:
Self-service 750 pzta.
Eguneko menua 1.500 pzta.
Degustazio menua 2.500 pzta.
Larunbatetan enkarguz 40tik
300erako taldeei ematen zaie

Tlfonoa: 16 02 15

ITAKA PUB

Arratsaldeko 6etatik goizalderarte

Zaldizurreta, 3. 16 03 40 Tlf.
BEASAIN

Bertsolari Gazteen Txapelketaz

1970 inguruan hasi ginen inguruko bertsozale batzuk, bertsolaritzaren inguruan zerbait egin beharko zela pentsatzen, batez ere bertsolari gazteei begira, ez baitzen ikusten gazterik zetorrenik, ez kantatzera eta ez entzutera. Honetan garbi ikusi genuen adinez heldua den bertsolari batek zaila zuela gazteei zerbait esatea berak ulertu edo gusto hartzeko moduan, eta, beraz, garbi zegoen bertsolari gazteari eman behar zitzaiola irteteko modua, zeren bertsolariak bazeuden han-hemenka.

Baina Euskal Herrian dugun gaitza, edo ez dakit nola esan, inon sariren bat irabazi edo lehiaketaren bat bereganatzen ez duen bitartean, bati ez zitzaion aintzakotzat hartzen. Bertsolari gazteei eman behar genion plazaratzea edo ospe edota izen bat ere. Horretarako sariaketa bat jartzea pentsatu genuen, eta nola? Urte batzuk lehenago Zumarragako Galeperra Elkartearen ospatu ohi zen horrelako txapelketa bat, 7 urtetan jokatu zen, baina urteak ere halakoak ziren haiek eta elkarteak junta aldatu zenean, grazi haundirik ez egiten bertso kontuak eta moztu egin zituzten.

Halako zerbait hemen egin genezakeela pentsatu eta hango eraketetan buru-belarri zebilen Luzio Gabiriaren gana jo genuen. Bera gabiriarra izanik gainera, eta gu kontu horrekin joateak baino poz haundiagorik ez dakit zerk emango zion hari. Handik aurrera hango esperientziak aurki jakin genituen eta bizi izan zer arte hemengo lehiaketako epaimahaikide izan zen.

Badakigu hasera hartako egoera eta oraingoa ez direla berdin, orduan ez zen eskola arteko txapelketarik eta horrelakorik, orain dagoen aukerarik ez zen orduan, nahiz eta laister hasi ziren "Xenpelar" Sariarekin urte batez (gero urte mordoska batean egin gabe egon

bazen ere). Zepai Saria lasterrera hasi zen, urte mordoxka batez, geroztik burutzen ez dena. Idiazabalen bertan jokatzen zen "Ampo" Saria ere, lantegiko jangeletan ospatzen zena, lehenengo afaldu eta ondoren bertso saioa. Urte askotan ez, baina egin zen batzuetan. Garai hartan bazen Goierriin halako kezka edo, bertsolaritzari laguntzeko gogo bat. Ordizian ere iraileko Jakintza edo Kultur Astearen ospatzen zen bertsolari gazteen lehiaketa. Lizardi Saria geroagokoa da eta orain badira han-hemenka eratzten diren beste zenbait lehiaketa saio ere. Baina izan ziren urte batzuk Gabiriko saio hau nahiko bakarra izaten zena bertsolari gazteentzat eta orduan erreferentzia izaten zen "Osinalde" (Elkartearen) Saria irabazita zuen batek ala ez.

Behar bada gaur ez da lehiaketa izateko garai batean hainbat arrazoi, gaur saio bat egitea nahikoa izango litzateke bertsolariei begira, baina hainbat urtetan egin den gauza bat aldatzen hastea momentuz, eta entzulea ere urtero berdintsua denez (horrela ohituta egonik hori eskatzen duenez), horrela jarraitzea pentsatzen dugu. Afaldu lehenengo eta mahaian bertan kantatzen da Osinalde Elkartearen. 3 sari izaten dira: Epaimahaiak aukeratzen duen 1.aren zatitza, bertsorik onenarentzat eta entzuleek aukeratzen dutenarentzat. Guztiek eman dezakete beren botua gehien gustatu zaien bertsolaria aukeratzeko, eta entzuleek eta epaimahaiak bertsolari bera aukeratzen badute, aukeran



jartzen zaizkio bi sariak, eta bestea epaimahaiak 2. daukanari ematen zaio. Trofeo bat Osinalde Elkarteak ipintzen du, bestea Ostatu jatetxeak eta bestea Kutxak.

Aurtengo Bertsolari Gazteen Txapelketa hau XXII.a izan dugu. Apirilaren 24ean jokatu zen eta bertan irabazle Aitor Sarriegi gertatu zen, herriak aukeratua Unai Agirre eta bertsorik onenaren trofeoa irazuk eraman zuen.

Hona hemen urtez urte orain arte Gabiriko Bertsolari Txapelketan irabazle gertatu direnak:

93.a: Aitor Sarriegi; 92.a: Maddalen Lujanbio; 91.a: Igor Elortza; 90.a: Azpillaga (errezildarra); 89.a: Munduate; 88.a: Elortza (Ormaiztegi); 87.a: Narbarte; 86.a: Solozabal; 85.a: Aristorena; 84.a: Loidisaletxe; 83.a: Euzkitze; 82.a: Jon Sarasua; 81.a: Xalbador (Berriatukoa); 80.a: Telleria; 79.a: Ziarda; 78.a: Elgetzu; 77.a: Begiristain; 76.a: Mendizabal; 75.a: Attola; 74.a: Xabier Zeberio; 73.a: Otamendi; 72.ean ez zen egin; 71.a: Patxi Iraola.

 **Euxebio Igartzabal**
Argazkia: R. Iraola

URBITARTE SAGARDOTEGIA

*Sagardo denboraldiz kanpo ere irekirik
asteburuetan, betiko sukaldaritzarekin

*Enkarguak: 88 83 31

*ERGOIENA AUZOA Tlf: 88 27 19
ATAUN



NAGUSIA,7 • Tfnoa: 88 03 19 • 20200 BEASAIN

Korrika-8ko Batzordearen balorapena

Martxoaren 30ean, eguerdian, pasa zen Lazkaotik Korrika-8. Jendetza handia korrika-saioa egiten eta korrikalariak animatzen... Ea jarraitzen dugun, euskara korrika edo poliki, baina etengabe erabiltzen, urte guztian zehar eta ea euskararen aldeko apustua ez den egun bateko bero-aldia eta izerdia izaten...

Kanpaina guztian zehar Lazkaon bildutako dirua haxe izan da: kuestazioan: 19.039; materialaren salmentan: 64.850; azukrearen salmentan (tabernetan): 24.000; Karrakorrikan (tonbolla): 17.000; Korrika-lagunengandik (enpresa, denda...): 86.200; Udalak: 10.000; Kilometroen salmentan: EHE: 25.000; Gerriko: 25.000; HB: 25.000; Maizpide: langileak: 25.000; ikasleak: 20.631. Guztira: 341.720 pzta.

Elkarrenganako susmoak susmo, ea geroz eta erreago bihurtzen den "Euskarak batzen gaitu" esaldia eta hurrengo Korrika-9an Batzordetik hasi eta beste edozein lanetan aurtan falta ziren hainbat alderdi politiko, elkarte, ikastetxe, Udala eta pertsona ikusten dugun.

"Korrika" eta hori bezalako beste hainbat euskararen aldeko ekintza ez daude politizatuta, baizik eta guk, norberak, politizatzen ditugu. Geure kaltetan, noski! Herriko gazteei ere



Korrika-8ri ongietorria Lazkaon. Antzar Gazteak...

deia, ea hurrengoan zuen partehartze aktibo eta *gaztea* gehiago nabaritzen den... Aurtengoagatik, zorionak elkarre, txaranga... eta denoi!

San Prointziotan euskal musika nagusi barraketan

Kritikatu, gaitzetsi eta salagarriak diren bezala euskararen kontrako era-

soak, bere alde egiten dena ere zoriondu eta txalotzekoa da. Eta beraz, iazko San Prointziotan barraketan euskal abesti bakar bat ere ez zela entzun salatu izan zen GOIERRITARRA honetan bertan. Aurtan, euskal musikak bere lekua izan duenez, eta zabala gainera, *zorionak* saiatu eta lortu duzuenoi!

Marijoxe Madariaga



MUJICA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA

Bodegon GOIERRI JATETXEA

Kale Nagusia, 20 Tel. 88 00 00 BEASAIN

LELA3 KRISTALDEGIA

Eraikin eta merkatalguneen
Kristal ezarrazteak - Beirategiak - Orma-ispiluak



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua, z/g. Tlf: 88 88 24
BILTEGIA: Beasaingo Industrialdea, Salbatore Auzoa. Tlf: 88 60 70
BEASAIN

Berriak badira Zaldibian

"Herrietako kronikak urratzen", zioen maiatzeko GOIERRITARAK, eta hemen gaituzue Zaldibiko berriak biltzen.

Pilota Eskola

Orain dela 10 urte inguru sortu zen Zaldibiko Pilota Eskola, pilotazale talde bati esker eta haur eta gazteen artean kirol hau zabaltzeko asmoz. Asteazken zehar 2 egunetan entrenatzen dute eta honetarako, eskolako arduradunen ustez, monitore finko baten beharra ikusten da, gehienbat txikiekin jarduteko. Urteaz zehar herri- eta eskola-arte txapelketa eta olinpiada ezberdinetan parte hartzen badute ere, ezinbestekoa dakusate beste era bateko topaketak antolatzea; zaila baita entrenamenduetan luzaro jarraitzea, partiduak jokatzeak aukerarik ez dutenean. Asmo honekin antolatu dute maiatzak bukatatik ekainak 23ra arte ospatuko den Herriarte Txapelketa, bertan 6 herri eskuhartuko dutelarik.

Ezin dezakegu amaitu eskolako arduradunek bertan dabilzaten haur eta gazteei zuzendutako mezua azaldu gabe: "Segi aurrera, gu beti izango gaituzue laguntzeko prest, eta gaztetxoak gurasoei eta gainontzeko herritarrei: interes pixkat gehixeago ekintza honetan eta ager zaitezten herrian eta kanpoan jokatzen dituzten partiduetara".



Ekainak 12, "Pilota Eguna"

Egitarau laburtua: 11etatik 12etara: Joko garbi, paleta, xare, erremontea eta emakumezkoak paletan (partiduok Resti eta Toki Alai pilotalekutan); 12etan: Toki Alain, fueraketan; 12,30etan: Herriko Txarangarekin batera Resti Frontoira desfilea. Bertan, Resti pilotariaren omenezko ekitaldia; 17etan, Partiduak: Toki Alai pilotalekuan, eskuzko partiduak: Jauregi/Sukia, Otegi/Telleriaren aurka; Mendi-zabal/Mendiola, Orbegozi/Goikoe-txearen aurka. Resti pilotalekuan, erre-monte, pala motza eta zesta punta partiduak.

Erakusketa

Ekainak 9tik 12ra, Pilotaren inguruko erakusketa bat zabalduko da, asteazkenetik ostiralera arratsaldeko

4etatik 8etara. Larunbatean goizeko 10etatik 14etara eta arratsaldean 16etik 20etara.

Dantzari Txiki Eguna 20ean

Egitaraua: 11etan, harrera eta hamaiketakoak; 12,30etan, desfilea herrian zehar; 14etan bazkaria, herriko etxeetan eta 5etan Jaialdia. Bertan parte hartzeko Herrialde guztietara zabaldu badute ere gonbitea, oraindik denak ziurtatzeko dauden honetan, 200 bat dantzari espe-ro dituzte antolatzaileek.

San Juan Bezpera

Nahiz oraindik programa zehazteko egon, aurreratu dezakegu azken urteotako usuarioari jarraituz Udalak eskeiniriko ardo barrika irekiko dela eta Guraso Elkarteak 100en bat lagunentzat marmitakoa prestatuko duela herriko plazan ospatuko den Herri Afarirako.

Ikastaroak Kultur Etxean

Eskulanak eta gozogintza ihardu-nean, maiatzetik uztailera. Ikastaro hauen iraupena 30 ordukoa izango da.

 Maixa Nazabal

Zerain

Pala txapelketa

Zeraingo festatako antolatzen ari da pala txapelketa hau. Aurtengo honekin izango dugu hirugarren txapelketa, orain hiru urte antolatu zen lehenengoa, orain bi urte izan zen bigarrena eta ia kale egin bazen ere aurtengo ohitura on honi jarraituko diogu. Lehenengo bi urteetan jende dexentek parte hartu zuen, hamarren

bat bikotek parte hartuko zuten lehenengo bi ekitaldietan. Kopuru ona da kontutan izanik herritarrak bakarrik parte hartzen dutela. Aurtengo honetan dagoeneko zazpi bikotek izena emana dute. Ligila bat egiten da bikote guztien artean, eta ligila honen ondoren punturik gehien lortzen dituzten bi bikoteak jokatzen dute finala. Ligila hau

ekainaren eta uztailaren aste bukaeratan jokatzen da eta finala berriz Andra-Mari jaietan. Txapelketa hau kirola eginez ondo pasatzeko aukera ederra da, apuntatu zaitez.

 Jexux Intxausti

San Joan Jaien Egitaraua

Ekainak 18 ostirala:(B) Bertso Jaialdia 22,30etan. Parte hartzaileak: S. Lizaso, Egaña, Peñagarikano, J. Sarasua, M. Lujanbio eta Irazu. Gai jartzailea: Marjoxe Madariaga.

Ekainak 23 asteazkena: 18,00: Buruhandi eta txistulariekin kalejira, Jaiei hasiera emanez. 19,00: Ohizko lora eta landareen bedeinkapena; 20,00: San Joan zuhaitzaren igoera; 21,00: Parrilakada; 22,00: San Joan Sua; 23,00: Koldo eta Arantxa Iparra-girre eta Munduate trikitilarien saioa.

Ekainak 24 San Joan Eguna: 10,30: Herri mailako mendiko bizikletazko ibilaldia; 11,00: Meza; 12,15: Hamaiketakoa, Imanol Lazkano eta Xabier Zeberio bertsolariekin; 16,00: Herri mailako Mus Txapelketa; Haur jolasak eta dantzariak ondoren; 20,00: Herri kirola: 3 aizkolari eta 3 harrija-sotzaileen arteko lehia eta Australia erako ebaketa; 22,00: Antzerki emanaldia Olaberriko Antzerki-Tailerra-

ren eskutik; 23,00: Bries taldearekin Dantzaldia goizalderarte.

Ekainak 25 ostirala: 18,30: Herri mailako "Plater Tiroketa"; 19,30: Herriko Pelota Txapelketako Erdi-finaleko partidua; Bolo eta Toka Txapelketa ondoren; 23,00: Drindots taldearekin dantzaldia; 03,00: Txokolatada; Ondoren, ezusteko jokuak.

Ekainak 26, Haurren Eguna: 10,30: VIII Txirrindulari Proba; 10,30: Haurrentzako Ginkana (irteera lurreko piszinetan); 11etatik 13etara eta 14,30etatik 18,30etara Haurrentzako Parkea, Gaztelu puzgarri eta moto-elektrikoekin; 13,30: Udalak eskeinita, haurrentzako bazkaria; jolasak ondoren; 18,00: Jaialdia, Azkona taldearen eskutik eta Haurren egunari amaiera emateko Aparraren Jaia; 20,30: Herri afaria; 23,30: Su-txinpartak, "Pirotecnia Zaragozana"ren eskutik; 00,00: Bries taldearekin Gaupasa; atsedendian moxorroen lehiaketa eta ondoren jokuak, baratzuri zopa...

Ekainak 27, igandea: 9,00: Goize-resia, Lazkaoko Txistulariekin; 11,00: Probintzi mailako plater hausketa; Meza Nagusia Loinatz Koruaren laguntzarekin; Jarraian honen kontzertua, bertan; 12,00: Herriko Pilota Txapelketaren finala; 17,00: Herriko Asto Lasterketa; 18,30: Koskola Txarangaren saioa; 19: Herri Kirol jaialdia, Lazkaomendi eta Olaberriko gazteen artean. Aurtengo jaietako azken kalejira Koskola Txarangak alaituko du.

Erakusketak

Bikario-etxeko Gela Nagusian erakutsiko diren lanak ondorengo ikastarootan eginak dira: **Eskulanen Ikastaroa:** Margoak: kamixetak, irudiak, maindirak, e.a. Makrame: lorontziak, margoak, maskarak, e.a. **Sormen Ikastaroa:** 9 eta 13 urte bitarteko gazte-txoek eginda: txotxongiloak, margoak, maskarak, e.a. Erakusketa ekainak 24, 26 eta 27an, goizez 11,30etatik 13,30etara eta arratsaldez 18,00etatik 20,00etara, irekiko da.

**GOIHERRI BIHOTZEAN
GIPUZKOAKO
KONTSUMITZAILE
GUZTIEN ZERBITZUAN**



A U K E R A

HIPERMERCADO



OLABERRIA

N A G U S I A

Jubilatuek egoitza berria

Jubilatuentzako Egoitza berriko lanak ia bukatuan daude, eta Jubilatuen Eguna (ekainak 13) irekiko dute ofizialki. Beraz, Udaletxeari erantsitako eraikuntza utzi, eta hemendik aurrera Kultur Etxean izango dute jubilatuek elkartzeko txokoa.

Egoitza berri hau egiteko Kultur Etxeak atzekaldera duen patioa itxi dute. Aurrekoak bezalaxe, honek ere taberna eta biltzeko gela bat izango ditu. Gainera, egoitza berriaren ondoan dagoen Kultur Aretoa erabili ahal izango dute bideoak, diapositibak... ikusteko. Eta nobedade bat ere bada: Kultur Etxearen atzekaldeko zelaitxoak ere erabili ahal izango da, eta bertan aulkiak eta mahaiak jarriko dituzte. Zelaitxo hori bitan banatuko da: alde bat tabernarentzat eta bestea jubilatuentzat. Jubilatuentzako erdi horretan 'toka' eta 'bote' jokoak egiteko lekua prestatu nahi dute.

Zer gertatuko da orain arte jubilatuen egoitza izan denarekin? Dirudie-nez, eraikuntza hori bota eta estankoko etxe berria eta udaletxearen artean geratzen den tarte horretan jardun koxkor



Ormaiztegiko bi jubilatu

bat egiteko asmoa dago.

Jubilatuen Eguna

Lehentxeago esan bezala, ekainaren 13an ospatuko da. Goizeko 11etan meza izango da, eta 12etan egoitza berriaren bedeinkapena. Ondoren, apetitua irekitzeko luntx moduko bat, eta urteko ekintza-egitarauaren aurkezpena. Bazkaria berriz 2etan hasiko da.(N)

Filminak Kultur Etxean

Aurreko aldietako arrakasta ikusi-

rik, ekainerako filmina emanaldiak antolatu dituzte. Ekainaren 8, 10, 11 eta 15ean izango dira emanaldiok, guztiak ere Kultur Etxean, eta arratsaldeko 7 t'erdietan. Lehenengo hirurak eskaladari buruzkoak izango dira, eta azkenekoak Peruko bazterrak erakutsiko dizkigu. Bestalde, Tourraren inguruan azken urteotan nolako zaletasuna sortu den ikusirik, etaparik garrantzitsuenetarako Kultur Aretoan pantaila erraldoi bat jartzeko asmoa ere badago.

Igerilekuak

Uda gero eta gertuago dago, eta urtero bezala, ikasturtea amaitu bezain laster igerilekuak martxan jarriko dira. Ekaineko laugarren asterako ireki ahal izatea espero dute. Salneurriak aurreko urteetakoen antzekoak izango dira, eta abonua mota desberdinak ere badira aukeran: denboraldiko osokoak, 20 bainutarako balio dutenak, familienezakoak... Abono hauetakoren bat egin nahi duenak jo beza udaletxera.

 Iñaki Amundarain

Itsasondo

Kultur Astea bete betean

Udako sasoia iristearekin batera Itsasondon kultura kontuak jartzen dira dantzan, urteko beste edozein sasoiaren baino gehiago. Kultur ekitaldi mordoxka bat bildu eta hauekint Kultur Aste labur bat osatu dugu aurten ere ohiturari jarraituz. Hemen duzu prestatu dugun kultur ekitaldien zerrenda:

□Ekainak 16, asteazkena: "Patagonia eta natura" diapositiba emanaldia, udaletxeko areto nagusian, iluntzeko 8etan. Natura maite baduzu, Patagonia aldeko irudi zoragarriak ikusi nahi badituzu, Itsasondora gonbidatuta zaude. Javier Fernandez Sanchez etorriko da Olaberitik bere tramankuluak hartuta. 300 diapositiba musikaz eta hitzez jantzirik prest izango ditu proiektzio berezi batean emateko.

□17, osteguna: Joxe Azurmendiren hitzaldia, udaletxeko areto nagusian, iluntzeko 8etan. Joxe Azurmendik kaleratu duen azken liburua, "Espainolak eta euskaldunak", sakon sakonetik eza-gützeko modua izango da ostegunean. Idazle eta pentsalari ezagun honek Euskal Herriari buruz dauzkan gogoe-tak zuztarretik jakingo ditugu, bera izango baita bertan.

□18, ostirala: Herri afaria bertsolari eta trikitilariekin, iluntzeko 8,30etan. Bereziki herrikoentzat den ekitaldia ere antolatu dugu urtero ohi bezala. Herri osoarentzat pentsatuta dagoen afaria egingo dugu ostiralean, herriko trikitilariak eta hiru bertsolari tartean ditugula: Imanol Lazkano, Xabier euskitze eta bi hauei tiraka Mikel Mendi-zabal.

□19, larunbata: Anje Duhalde eta bere taldearen kantaldia. Errota frontoian, gaueko 10,30etan. Errematerako kantaldia utzi dugu aurten. Anje Duhalde etorriko zaigu bere taldearekin Ustaritzetik. Garai honetarako aterata izango du bere arizon diskoa. 20 urte kantuan pasa eta gero, aurten zuzen zuzenean egin dituen kantaldietako abestiekin disko bikoitz bat kaleratuko du. Disko berri hau estrenatzera etorri-ko zaigu.

Hauez gain, bereziki herriko umeentzat prestatutako ekitaldia ere izango da, nahiz oraindik noiz eta non izango den zehazteko dagoen. Hemen dituzu eskeintzak, aukera zure esku dago, gonbitea baduzula badakizu.

Arantxa Arza (Kultura Batzordea)

□Maiatzaren 19an bete dira 3 urte Ordizia ingurualdeak harritea jasan zutenetik. Kaltetuek dirulaguntzak jasotzeko lanak izan zituzten, Administrazioak kaltetuei eskatutako dokumentazioa biltzeak, burokrazia eta papeleo galanta suposatu zuen udal teknikoek diotenez. Kalteak 2.800 milioietakoak izan ziren guztira eta dirulaguntzak (etxebizitza eta kotxeak) %66. Donostiako uholdeek sortutako kalteentzako Diputazioak emandako dirulaguntza handiagoak izan bide dira. Galbahe desberdina erabiltzen da, antza denez.

□Ordizia eta Itsasondo arteko biharko egunerako espaloia baterako proiektua aurreratzen doaz. Bi Udalak eta Foru Aldundia daude interes gehienarekin Filipineta kaletik hasita Ibares arteko espaloia egiteko. Zenbatu gabe badago ere 100 milioitik gora kostako omen da.

□Orain dela egun batzuk Gobernu Batzordeak bidea eman zion bere egunean Obra Batzordeak onartu zuen akordio bati: hirigune historikoaren urbanizazioarako proiektuaren erredakzioa eskatzen zitzaion Pilar Amenabar udal arkitektoari. 5 milioietako aurrekontua du lan honek. Udalak lehen pausua eman du honekin antigoaleko "kaskoa" berreskuratzeko. Horretarako Udalak aurrera daramatza Plaza Nagusiaren txekeoa, erregadio hodien ezartzea, e.a. Erreabilitazio egitasmo honek hirigune historikoaren peatonalizazioa aurreikusten du eta trafikoa galeraziko luke bertako merkataritza eta azokarako karga eta deskargak salbu. Guzti horrek polemika sortu bide du eta sortuko omen du gerora ere.

□Alotza Haurtzaindegia lokal berri bat izango du aurrerantzean Arana Kalean. Gorabehera batzuen ondoren,

Alotzako guraso eta arduradunek txaloen artean jaso zuten Udal Batzak hartutako erabakia (lokal berria kondiziotan jartzea), PSOE, HB eta Talde mixtoaren aldeko botuekin. Bestalde, Gurutze Gorriak aurkeztutako diskriminazioaren aurkako mozio bat onartu zuen Udal Batzak. HB, Talde mixtoak, EA eta PSOEk horren aldeko botua eman zuten, EAJ abstenitzen zen bitartean.



□Maiatzaren hasieran izan ziren Jakintza Ikastolak 25 urte betetzen zituela eta, zilarrezko eztaien ekitaldien hasiera. Klandestinitatean eman ziren ikastola izango zenaren inguruko lehen pausuak. Juanita Lasa, Joan Antonio Galparsoro, Jose Ramon Gaztañaga, Joseba Lasa, Lutxi Zaldua, M. Karmen Oiarbide, Rosarito Lasa, Mikel Arrese eta Jaxinto Mujika izan ziren lehen bileretan parte hartu eta Ikastolaren lehen Juntaren partaide. Gaur egun, Jakintzak 700dik gora ikasle ditu eta 46 irakasle.

□Hilaren hasieran eman zituen lehen pausuak Kilometroak 93ek. Egitaraua ezagutzera eman eta pregoia irakurri zen. Hona hemen Juanbi Erauskin alkatearen interbentzioko zati bat:

"Orain dela 16 urte, urriaren 3an ospatuko dugun egunak, Goierri bailaran eman zituen lehen pausoak. Gogoratuko duzuen bezala, Beasaingo herria izan zen lehendabiziko Kilometroak antolatu zuena. Garai hartan ikastolak jaio berriak ziren eta izugarritzko zailtasunak izan zituzten behar zuten garapena lortzeko; arazoen artean, bat garrantzitsu: diru eza. Denboraren poderioz, finantziario arazoak konpontzen joan ziren eta Ikastolaren eguna Euskararen eguna bilakatu zen. (...) Ordiziako alkate naizen aldetik, ohore handia da niretzat, Ordiziaren izenean Kilometroak-en aurkezpenari hasiera ematea. Euskalduntasunaren bide malkartsu bezain pozgarrian aspaldi bait gaude lotuak, aurrerantzean ere eginahalak egin beharko ditugu euskarak bere herria behin betikoz lor dezan eta 'euskara jalgi hadi plazara' hura gizar-tearen arlo guztietan erro dadin".

□300 bat lagun bildu ziren 11aren arratsaldean Plazan,

Udalak deiturik, bosnietarrekiko elkartasuna adieraztearen beren bi familiarrekiko hil baitzituzten beren jaioterrian.

□Iñaki Linazasoro ezagunak egindako proposamenari muzin egin zion Kultura Batzordeak. Urdanetari buruzko Oñativieren koadro bat erostea proposatzen zuen Tolosakoak eta obra-lanaren balioa 200.000 pztetan zifratzen zen. Hasieran aldeko jarrerak, gero EAJren aurkako iritzia eta azkenik ezetza, teknikoaren txostenean ondo oinarriturik.

Jesus Munduate

Jon Arano.

Argazkia: Josetxo Marin.

IZARRA OSTATUA



Logelak, eguneroko menua eta berezia eta menu berezia aste buruetan
Turismo gaztearentzat aparta

Errepide nagusia, 428 kma. LEGORRETA
Erreserbak: 80 60 44 telefonoan

Kawasaki YAMAHA

SUZUKI HONDA



ZUREMOTO, C.B.

Poligono Hiribarren, Atze 1
20210 LAZKAO (Gipuzkoa)

Teléf. (943) 88 39 03

Maiatzeko azken kimuak

Aurten ere, maiatzak bere azken kimuak er-netu ditu eta pixkanaka itzaltzen, bizia galtzen joan da; elorri gazteak loratu eta ekainari eskeini dio berak bezala hilabete batez arnasa hartzeko aukera. Maiatzean eta Idiazabal alde hontan, aurreko



Argazkia: FOTOETXE

alean aipatu bezala, aste kulturala ospatu dugu eta, nahiz eta aste koxkor bat besterik ez izan, bapo igaro da.

Kultur astea maiatzaren 14.ean hasi zen, "Taun-taun" taldearen show bikainarekin. 15ean, larunbata, arratsaldeko 5ak aldean Albitxura V igoera ospatu zen. Herriko gazte eta ez hain gazteak izan ziren txirrindulari proba honetan eta esan beharra dago oso-oso ondo atera zela. Igandean artisau erakusketa ikusgarri bat izan genuen herriko plazan eta bertara hurreratu zen jende multzo galant hark, ikustekoak ikusi eta giro hartaz gozatzeaz gain, talo goxoak dastatzeko aukera ere izan zuen. Liburutegiko kanpainari (libu-

ruak liburutegitik atera eta jendeari eskura jarri zaizkio denda eta tabernetan aste batzutan) ere bertan eman zitzaion amaiera.

Horrela joan zitzaigun aste bukaera eta astelehenetik ostiralera bitartean hitzaldi eta elkarrizketa ugari izan genituen. Besteak beste, astearteko Joxerra Gartziaren saioa ederki joan zen, ongi baino hobeto adierazi zigularik zertarako balio duten aintzakotzat hain gutxi hartzen ditugun eta balio neurtezina duten liburuek. Hitzaldi horrez gain, mahai inguru bat ere izan zen ostegunean. Aizkorriko Parke Naturala zuen gaitzat eta jende asko hurbildu zen Kultur Etxera. Jendea oso interesatua

zegoen, Parke Natural hitz horrek zer esan nahi ote duen ez zegoen batere garbi eta ez dakigu bukatu eta gero ere jendea oso gustora geratu ote zen Diputazioko teknikariak esandakoarekin. Dena den, ikusiko da zer gertatzen den, ez baita bihar edo etziko kontua ere haxe.

Jojo eta Ramuntxok eman zioten bukaera Kultur Asteari. Bikote nahiko ezaguna zen hau gure artean eta, jakina, jende gutxi izan zen. Kantaldi polita eskeini ziguten, ahots eta kitarrez, pilotalekuaren oihartzun arazoak alde batera utziz. Gixa hontan agurtu dugu maiatza idiazabaldarrok, baina jakin ezazue oraindik ere badela zer ikusi eta ikasia, ekaineko San Juanak ez baititugu ahaztu. Izan ere, herriko gazte asanbladak, joandako azken bi urteetan bezala, dantza eta kanta alaiez jantziko baitu uda aldeko San Juan gau epela. Beraz, ondo izan eta hurrenarte!

✍️ Aloña Galarrraga (Zirika Irratia)

GURPIL BIZIKLETAK

Bideluze Plaza, z/g. - Telf: 88 89 51

20200 BEASAIN

MUJIK AUTOAK S.M

JABIER Mujika Txapartegi
tailer eta zerbitzu-burua

N-1 Errep. Nagusia., 419.Km

Tfna: 88 74 00 / 88 74 04

Fax: 88 79 52 BEASAIN



SEGUROS BANCO VITALICIO NACIONAL HISPANICA
VITALICIO PENSIONES

ASEGURUA

Unanue Enparantza, 3 • Tfnoa: 16 04 86

TOKI-ALAI JATETXEA

Bataio-jaunartze bazkariak, afariak,...

Tfnoa: 88 89 53 ARAMA

50 URTEREKin SASOI BETEAN DABIL ATAUNDAR AIZKOLARIA

Joxe Aierbe: "Afizioa dagoenean gustora ibiltzen da"

Orain dela gutxi bere adineko marka berria jarri duen Joxe Aierbe ataundar aizkolari, korrikalari eta segalaria duela 50 urte jaio

zen Ataun San Gregorioko Lauztiturri baserrian eta bertan hazi 27 urterekin ezkondu eta kalera jeitsi arte.

Bere bizitzan zehar hainbat apustu egin, marka hautsi eta zer esana eman duen gizon hau orain dela gutxi denon ahotan egon da egin duen marka dela medio. "Udan asko izaten gara exhibizioetan eta orain 50 urterekin, zahartuta, horrelako marka bat egitea pentsatu nuen" dio Joxek. Egin beharreko lana: lehendabizi 20 kana erdiko moztu eta jarraian 20 Km. korrika egitea zen. Lan berdinean lehenengo marka 27 urterekin Txikito Ruizena hautsiz egin zuen. Harrezkero

Geroago bere markarik hoberena 34 urte zituenean jarri zuen Gasteizen, 2 ordu, 9 minutu eta 39 segundurekin. Oraingoan berriz 5 minutu t'erdi gehiago behar izan ditu, bere edaderako marka bikaina. "Hala ere belaunean tendinitisa neukan eta beldur handiarekin aritu nintzan korrika, ondo egon ezker denbora gutxiagoan egin beharko nuke".

Oraingo honetan gorputzak behar bezala prestatzen utzi ez badio ere, entrenamentuetan ez dago lehengo konturik. "Garai batean afizio handia zegoen baina ez zen orain bezala prestatzen ezta gutxiagorik ere. Ni ondo prestatu ezker 30 bat urterekin lan hau 2 orduetan egin ahal izango nuke, baina orduan lan egin eta ez ginen behar bezala aritzen". Baina haiek beste garai batzuk ziren ataundarra- rentzat, orain Hirigoiien medikua, entrenatzailea eta laguntza gehiagorekin hobe prestatzen da. Honez gain zahartu eta esperientzia gehiago edukitzean, ofizioa ikasten da eta horrek asko lagundu dio teknika hobetzen.

Bere kirol ibilbidearen hasera 14 urterekin eman zuen Ataungo festetan



Gazteagoa zenean zezen plazan korrika

korrika atera eta irabazi zuenean. Herrian lasterketa guztiak irabazten zuten eta kanpoan ere bai zenbait. Gero serioago soldaduskan hasi zen, Coruñan Espainiako txapeldun izan zen 10 Km.etan. Etxera itzultitakoan basoan lanean hasi zen eta hor sortu zitzaion aizkorian eta laisterka aritzeko asmoa. "Hemen korrika egiteko ez zegoen posibilitate handirik, aizkorian eta korrika berriz bazebiltzan, Txikito Ruiz eta beste batzuk, ni ere halaxe hasi nintzan laneko lagunak berotuta".

Goierrri aldean ez dago Herri Kirolerako zaletasun gehiegirik, baina Aierbek dionez orain pixkabat sartu da, agian berak egin dituen markek ba dute



1976.ean errekorra egin zueneko

beste inor ez da marka hori hobetzen saiatu, "lan handiak bait dira eta egurra egin ondoren 20 Km. korrika egiteko ondo prestatua egoteaz gain, korrikalaria izan behar da, bestela hantek ez dute erantzuten.

Mandubiko Benta



☎ 88 26 73

Urolatik
bidean
MANDUBIA

Goierriako

Etxe - Zuri
Sagardotegia

Etxe-Zuri baserria
Tel. 88 20 49

20212 OLABERRIA



50 urterekin, sasoiean, bere marka berria jarri du

horretan zer ikusia. Gabezi hori berak notatu du, "Ataungo lagun batzuk ibili dira nerekin baina ez dut afizioa dagoen lekuetan kirolariari laguntzeko biltzen diren bezalako kuadrilarik izan". Zenbait apustueta saketik dirua jarri beharra izan badu ere gehiengoa ingurukoen laguntza izan du.

Zaletasuna goraka edo beheraka doan galdetutakoan zera dio: "Oraingo gazteak juerga asko egiten du eta hor sufritu egin behar da, afizioa atzeraka doala dirudi. Gazteak ikusten dira aizkoran baina onak aterako direnak gutxi, Mindegiaien semea edo horrelakoren bat. Nere semea ere zerbait ibiltzen da baina ez du afiziorik". Orain gazte taldeak ere hasiak dira jaietan eta herri kirola egiten, agian ez txapelketa edo apustueta mailan baina zerbait mugitzen ari dela dirudi. "Hori ondo dago, horrela hasita bakarren bat ona atera liteke eta kuadrilan norbaitek balio duela ikusiz gero lagunak bultzatuta aurrera egin lezake. Giroa sortzen da, bestela, girorik ezean jai dago".

Apustua bai ala ez eztabaida sortua da aspaldi honetan. Berez lanetik eta honen inguruko norgehiagokatik sortutako kirola denez, Aierbek beharrezko ikusten du dirua jokatzeko herri ki-

rolean "apustua da hemengo sustraia eta gainera txapelketak baina jende gehiago biltzen du. Txapelketak ere behar dira, hortik hasten bait da kirolaria, baina apustua galdu ezkerro ez zait iruditzen hau aurrera joango denik". Berari denean ibiltzea suertatu zaio, Euskadiko txapelketa batzuetan parte hartu du 4 eta 5. postuetan geldituz. Mendian lan egitean ez du prestatzeko

denbora handirik izan eta txapelketara sasoiean joan behar da, horregatik ez du askotan parte hartu.

Apustuari dagokionez, lehenengoa 25 urterekin Alberdi beizamarraren aurka egin zuenetik majinabat saiotan ibilia da, bera ere ez da gogoratzen zenbatetan parte hartu duen. "Galdu gabe ez dago ibiltzerik" eta jokaturakoen hirutatik bi irabazi dituela dio. Berarekin norgehiagokan ibili direnen zerrenda luzea da: Arria zaharra eta gaztea, Etxebeste, Ugarteburu, Mindegia, Barberia, Mendizabal... Apustu motak ere asko izan dira: Aizkoran eta korrika, aizkoran bakarrik, bi biren aurka, bera zutik eta besteak etzanda (irabazi gainera)... Egindako apusturik gogorren bezala bi gogoratzen ditu, bat Arria IIIren aurka 25 segunduko diferentziaz eta bestea Etxebesteren aurka 45 segundukoaz, baina biak irabazi.

Enborretan txikia baina handia nahiago duela dio. Neurritz kanpokoe-kin, ia 4 metrokoak, ere aritu da, bat zutika San Gregorion bertan, Ugarte-

buruen aurka Ormaiztegin... Enbor handietan diferentzi asko ez dagoen arren, txikietan askoz ere hobeak diren aizkora australiarrak erabiltzen ditugaur egungo aizkolari guztiek bezala.

Segan ere 4 apustu egin ditu: pare bat biz-bika segan eta aizkoran, beste bat segan eta korrikan, hiruak irabaziak eta galdu duen bakarra Iruntxiberriren aurka bentaja emanda, haundiegia dirudienez. "Segarako afizio handia dut, gustatuko litzaidake erretiratzerako horrelako komeri bat egitea, baina hemendik aurrera milagro handirik ezin da espero".

Aurrerantzean ere jarraitzeko asmoa du, laister exhibizioetan hasiko da, Ekainean Sueziara doa makinari azoka batean aizkoran egitera eta gero udan asko dauzka. "Anka ondo jarri ezkerro hor ibiltzeko edaderik ez daukadan



San Gregorion enbortzarra zutika moztzen

arren neure burua ondo ikusten dut eta agian markaren bat edo zerbait egingo dut", dio animoso. Ez du ez gogorik falta "dirua ez da egiten baina afizioa dagoenean gustatu egiten da eta hor ibili gara. Kirola egiteko horrela behar da, gogoz kontra beste batzuk lagun- duagatik ez du balio, sufritzen jakiteko afizio handia behar bait da".

Mikel Albisu

Jatetxea

HAIZPE

Gudarien Etorbidea - Tel. 88 39 60
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

ALTZAGARATE

JATETXEA

- Leku aproposa bataio, jaunartze, eztaiak, e.a. ospatzeko
- Bazkari, afari, meriendak...

88 41 96 Telefonora. ALTZAGA.

Gaztelu, gailurra Aralarren

Behin Larraitzen izanez gero, ohizkoena Txindokira igotzea izaten da, baina bertikasunetik ateratzeko, Aralarreko tontor xume bezain erakargarria abiatuko gara, Gaztelura. Aralarreko beste inguruko mendi-puntak baino txikiagoa izan arren, goitik ikus daitekeen paisaia Aralarreko onenetakoa da: Goierri osoa ikus daiteke eta bestaldera begira, Ernio, Murumendi edota Aizkorriko mendikatea.



Gure eskuinera, iparrera Gaztelu ageri da, mendi bizkarrean ondo markatuta dago tontorrerainoko bidea. Azkeneko metroak harkaitz arteko bideska batetik egingo ditugu eta gailurrean izango gara (904 m). Han goian, aspaldiko gaztelu baten aztarnak ikus daitezke oraindik. Historialarien esanetan, Gipuzkoak Nafarroa izateari utzi eta Castillaren menpe erori zeneko garaikoa da, 1200.aren ingurukoa. Zertarako

gaztelu bat han goian? Oiduiako galtzada primeran zaintzeko lekua izan behar zuelako, eta ehundaka edo akaso milaka urteetan Oiduiako galtzada Gipuzkoa eta Nafarroaren arteko lokarri garrantzitsuenetakoa izan delako. Nahiz orain mendizaleek bakarrik erabili.

Kexexo

Larraitzeko langa zeharkatuz, eskubirantz lehenbizi pistaz eta gero bideska bihurtzen denetik jarraitu behar dugu. Laster helduko gara Kastesu-gaia (510 m), bertan Txindokira ezkerretik abiatzen diren bideak utzi eta guk eskubiko pista nabarmenari helduko diogu. Berehala iturri bat ikusiko dugu bidearen ezkerretara, orain

arte aldapa handiegirik izan ezpada ere, egarria asetu, eta, geldiunetxo bat egiteko une aproposa izan liteke. Horrelako txangoetan lasaitasuna baino lege hoberik ez da.

Txindokitik datorren ertz harkaitztsua iragan ondoren, Aitzolako erreka-ko burnizko zubira iritsiko gara. Bidea ondo seinalatuta dago eta laster Errekotako lepora iritsiko gara (766 m).

Bi lerrotan

□ "Marron"ek Everest gailurra eginez listoa altu jarri duen honetan, beste goierritar espedizio bat dihoa Himalayara. Cho-Oyu edota "Turkesaren jainkosa" deritzan gailurrera doaz uda honetan lau gazte: Ormaiztegiko Joxe Ramon Lasa, Segurako Rafael Berasategi, Juanra Garitano Zumarragatik eta Bittor Umaran bizkaitarra. Abuztuan aterako dira eta bi hilabete pasatxo egingo dute han, ondo izanda irailaren 20ean goian izatekotan. Cho-Oyu-rako espedizioa lehen espedizio goierritarra da 8.000 bat egitera dihoana.

□ Alfredo Castillo, Beasaingo futbol entrenatzailea postutik kendu du zuzendaritzak taldearen emaitza txarrak

direla medio. Ez da batere gustora joan kanariarra, erabakia onartu badu ere ez dago batere ados arduradunen jarrerarekin. Jokalariak agurtzerakoan ezin izan zien negar malkoei eutsi, zelaiean dena ematen duten mutil hauekin oso harreman ona eduki bait du.

□ Iberdrola-Loinazeko beasaingar txirindulari gazte eta gaztetxoak garai-pen berriak izan dituzte. Infantilen taldea (Unai Paredes, Ion Lasa, Iban Aranburu, Koldo Kamatxo, Zuhaitz Ayuso eta Beñat Garaialde) erlojuaren aurkako Gipuzkoako txapeldun da.

□ Ostiral eta astelehenero zozketatzen dira arrantza-paseak Lareon arrantza

egiteko. Aidanez, jendetza izugarria aurkeztzen da bertara. Arrantzale batek ia 4 kg. tako amuarraina harrapatu zuen.

□ Ordiziako saski-baloiko lehen taldeak balantze baikorrekin bukatu du oraindainoko denboraldia. Entrenatzaile berria eta hainbat baja (tartean Juanjo Balerdirena, GOIERRITARRAko kolaboratzailea), kezkak baziren denboraldi haseran, baina azkenean 2. postuan klasifikatu dira Juanan Sarasolarekin dabilzenak.

□ Ordiziako igerilariak Estatuko rankinean klasifikatzea arrakastatsutzat jo dute. Puntuatu zutenen 203en artetik 40.ak geratu ziren.



**ANAIK
GARAJEA**

MEKANIKA ETA IBILGAILU-KONPONKETA

Guardiko Industri-Poligonoa
Tfnoa: 80 11 32

IDIAZABAL
(Gipuzkoa)

Zein da aldizkari irakurriena Goierri? Zure publizitatea 3.000 txokotara iristea nahi baduzu, dei egiguzu. Izena emango dizu GOIERRITARRAn iragartzeak, aldizkari bat baino gehiago baita honakoa.

Dei 88 96 12 telefonora.

□Ormaiztegiko Zumalakarregi Museoak, azken bi urteetako deialdien arrakasta kontuan izanik, aurten ere ikerketa historikoak sustatzeko laguntza bat eskaintzea erabaki du. Deialdian zaletu, ikasle edo espezialista orok har dezakete parte. Bestalde, Museoak berak martxan jarri du lurralde osoan "Maleta pedagogikoa", gaurko gazteak aurreko mendeko Gipuzkoako historiara inguratzeko ekimena. Garraio eta komunikazioak ditu gaiak.

□Aurtengo San Prudentzio jaietarako kalean izan dugu "Lazkao" bi-urtekarria. Iazkoan huts egin zuen eta bi urtez behin argitaratzea erabaki zen, argitalpenak sortzen duen galera ekonomikoa medio. "San Prudentzio 93" gaiaren inguruan, ekainean argazki erakusketa bat aurrera eramateko asmoa dago, bestalde.

□Urtero bezala, aurten ere iritsi zaie bere garaia, 19.ez aidanez, Maizpideko Udako Euskal Ikastaroek. Uztailekoa, 5etik 23a bitarte burutuko da, abuztu-koa, berriz, 2tik 20ra eta, hirugarrenik, iraileko 6etik urriak 1a bitarte. Izen ematea maiatzak 4tik irekirik dago, ikasle-kopurua osatu arte. Lehentasuna, goierritar guztiek izango dute. Aurrena matrikula-ordainketa egin, gero sarrera azterketa eta azkenik ikastaroa disfrutatzea besterik ez du. 15-20 eguneko ikastaro trinkootan 5-6 orduko

ikastaroak izango dira, zenbait dantza eta bertsolaritza ikastaro, mus-txapelketa, antzerki tailerrak e.a. Iluntzetan kultur ekintzak, jaialdiak e.a. Egun osoan jo ta ke euskara hutsean aritzeko aukera ezin hobea!

□Ekaineko Kilometroak 93en kultur programa, Ordizian: 4ean: hitzaldia eta filminak, Aralar Parke Naturala, Barreran, 8etan; 6ean: puenting herrikoia haurrentzat, Pilotalekuan, 12,30etan; musika emanaldia, 12,30etan Herri Antzokian (Sta. Ana eta Sta. Ana Txiki abesbatzak, Antton Imaz eta Beti Argi Banda); 12an: 10etan zirkuituaren eza-gutza, abiapuntua: Altamirako Jakintza Ikastola (hamaiketako Oiangun); 13an: Kross jaialdi herrikoia Oiangun, 9,30etan hasita; 19an: Herriarteko pilota partiduak (3./4. postuak lehian) pilotalekuan, 4,30etan.

□"Goiherriko Euskal Eskola" eta Maizpide Euskaltegiak antolatutako III Gerriko Ikerlan Sariketako lan irabazleak argitara berri ditu Eusko Jaur-laritzak. Batak "Juan Inazio Iztueta Etxeberria (1767-1845)" du izenburu eta Maizpideko lau irakasle burutua da: Pello Joxe Aranburu, Marian Bide-gain, Antton Idiakez eta Iñaki Rezolak, hain zuzen ere. Orain arte Zaldibiako idazle eta folklorzale ospetsuari buruz esan diren guztiak bildu eta txukundu dituzte (Adibide gisa ikus GOIERRI-

TARRA honetako "Goierritar Klasi-koak"). Beste ikerlana, "Goierriko biz-tanleria" (1860-1986) Arkaitz Arrua-barrena beasaindarrak eginga da (Ikus ondorioak ale honetako gizarte sai-lean).

□Segurako Udalak antolatutako VIII Fandango eta Ariñ-Ariñ lehiaketan Txomin Agirregomezkorta eta J. Luis Franzesena gertatu dira irabazle. Epai-mahaian, besteak beste, Joxemari Te-lleria herriko txistulari arduraduna eta artista eta Udalaren ordezkari gisa Gu-rutz Goikoetxea egin dira.

□Beasainek Musika Banda izango du berriro hile honetatik aurrera. Laister egingo da Beasaingo herriaren aurreko aurkezpena bertako Loinatzko San Martin Plazako kiosko berrituan. Mu-sika Kontserbatoriotik sortu da eta zuzendari bera izango du: Iñaki Aierbe.

□Oso saio ona eman zuten S. Lizaso, Egaña, Mendizabal, Murua, Euzkitze eta Peñagarikanok Lazkao Txikiren omenezkoan. 800 entzule inguruk bete zuten herriko zinema aretoa. Giro ona, gai egokiak (Joxepa Madariagak ja-rriak) eta puntako bertsoak. Saioaren aurretik omenaldia Lazkaomendikoa-ri. Hark kantatutako hainbat bertsokiko orria banatu zitzaizen entzuleei eta kan-tatu egin ziren elkar hartuta.



Santa Maria, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA

ERAIKUNTZAK

OTEGI-UNANUE

EDOZEIN ERAIKUNTZA EGITEKO PRESTATUA



Beko-Kale, 17 - 1.º
Telefona, 16 02 22
20249 ITSASONDO (Gipuzkoa)



GOIAGI OKINDEGIA

Etxezarreta, z/g.
Tel. 88 12 11
ORDIZIA

GOIERRIKO ZURAK, S.L.

Inportazioko zur-biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
88 80 23

20210 LAZKAO

XXI.AREN ATARIAN 2.000 BERTSO-DOINU BILDU ATAUNDARRAK

Joanito Dorronsoro: "Doinu guztietara iristea da zailena"

Ataun San Gregorion jaioa, apaiz "gorria" eta organista izana, Gaintzan bertso-zale-tua, bertan giro ona baitzen horretarako,

Zumaiara apaiz gisa heldu eta han bukatu ziren Joanitoren sermoiak, bertara ezkondu baitzen.

Gure jarduna bukatu eta "Hertzainak" taldearen disko bat ikusi nuen, hantxe, apal batean. Baie-tz, gustatzen zitzaioela taldea, baina disko hura han egotea seme-ala-ben kontua zela. Neri behintzat, beste arrazoi batek eraman ninduen Zumaia-ko bere etxera. Izan ere, 2.000. urtearen atarian gaudela, 2.000 bertso-doinutik gora bildu baititu ataundarrak. In-prenta-lanak, berriz, Lazkaoko Beneditarretan burutu dira. Hantxe utzi nuen, Zumaian, txorien txio-txioen artean, lanean buru-belarri, bildumari azken orraztua eman behar ziola eta. Bertso-doinu bakoitzak du bere izena, pentagrama, lehendabiziko aldiz non kantatu zen, non jasoa den ere aitatzen da, non argitaratua, zeinek jasoa, eliza-rako, dantzarako edo zer den e.a.

Bilduma egiteko behar-beharrezkoa den tresna baten ondoan eseri ginen, pianoaren aldamenean. Izan ere, bertso-doinuak solfeoz idatzita azaltzen

dira. Horrelako lan bat txukun egingo bada, ezinbestekoa da metodologiarekin asmatzea: "Haseran ez nekian zertan sartzen ari nintzen. Doinu guztiak nere buruan dominatzeko asmoa nian", esan digu ataundarrak. Baina segituan jabetu zen hori ez zela posible, 200 bertso-doinu jasoko zituen buruz, baina hortik aurrerakoak, ez berehala. Orduan hasi zen bertsoak solfeoz idazten.

Izenak jarri behar

Bertsoak, esan beharrik ez dago, herriak kantatzen ditu. Eta, horrenbestez, ez da harritzekoa izaten bertso batek segun zeinek eta segun zein tokitan kantatzen den, aldaerak izatea. Eta bertso-doinu bati izena jartzeko orduan etortzen dira komeriak: "Edozein bertso-doinu hartzen dek, eta hori identi-

fikatu. Hau ze doinu dek? Eta gero al-dakiak. Kosta egiten zaik bera dala jakitea... Doinu bera duk ba, kasik. Identifikatzeko egin behar izan diat argitaratuako guzti-guztia, solfeoz dagoen guzti-guztia, aztertu, eta solfeoa

"Bertsolaria ez da doinuaren menpe jarri behar"


bezala, diskoak, kasetak, kantauto-reak, bertso-jaialdiak... Hau hau duk, beste hau bestea...", adierazi digu Dorronsorok.

Eta aldakia ez da izaten hitz baten




ZUHAIZKI
Zurgindegi Mekanikoa


- LEIHOAK, ATEAK ETA ABAR
- ESKAILERAK NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)



KOLDO ETA ARANTXA IPARRAGIRRE



duk. Txomin Artolak
igoal asmatu dik
doinu bat, baina
gaur bertsolariek
darabilkiten hura ez
duk Artolarena bera,
herrikoitu egin duk,
ez dek Artolarena
bakarrik, herriarena
dek. Musiko batek
esango dik 'etzegok
deretxoik...'. Doinu
herrikoia, herrikoia
den neurrian, he-
rriak bereganatu
egin dik, eta anoni-
mo bihurtu piskat".

Horrezaz aparte,
kantariak ondo asko
dakite beren musika
zabaltzeko bide ezin
hobea dela halako
doinua bertsolarien
ahotan plazarik pla-
za ibiltzea. Eta ber-
tsolariak ere kanta-

dearen bertsioa bakarrik ezagutzen dik
gazte-jendeak. Eta hiru edo lau doinu
badizkik".

Doinua hitzaren menpe

Eta hala behar duela gainera uste du
ataundarrak. Doinua hitzaren lagun-
garri izan behar duela. Helburua publi-
koarekin konektatzea dela, eta bertso-
lari gaztetxoek direla beharbada,
entzuleen artean jende gaztea ikusiz
gero, harreman hori musikaren bidez
gauzatzen gehien saiatzen direnak.
Baina, bestalde, bertsolari-gazteek
geroz eta gutxiago erabiltzen omen du-
te molde txikia. Eta ez gaztetxoek ba-
karrik. Eta bilduma honetan doinu
gehienak molde txikiari daude lotuak.
Baina honetan ere Gipuzkoaren joera
ari omen da nabarmentzen, zortziko
nagusia Gipuzkoako kontua izan dela
gehienbat.

Besterik esan du doinuen gainean
Joanitik. Iparraldeak zintzoago jokatu
dutela orain artekoan doinuaren erres-
petoan, aldaki gutxiago daudela. Hala
ere, ez du ahazten doinu berriak plaza-
ratzeko zenbait bertsolarik egin duten
ahalegina. Goierriko bi aipatzekotan,
Joxemiel Iztueta 'Lazkao Txiki' eta
Mikel Mendizabal.

Jon Imanol Iturrioz

ordez beste bat azaltzea, ez hori baka-
rrik behintzat. Batzuetan musika bera
ere aldatu egiten da. Esate baterako,
azken urteotan modan jarri da bertsoak
"Rap" doinuarekin kantatzea. Bide
hori ez du txartat hartzen, baina ontzat
ere ez: "Ez zekiat ba", erantzun digu.
Dena dela, bertsolari eta kantarien ar-
teko harremana eta elkar-lana aspaldi-
koa da: "Doinu popularra hola izan

riak zein doinu sortuko egoten dira.
Hala ere, Joanitik aitortu digu doinuen
kontu honetan izugarritzko pobretzea
datorrela, errezena jotzen dela sarri,
oso erritmo errepikatiboak daudela
modan: "Adibidez 'Antton eta Maria'.
Horrek badik beste erritmo bat Nafa-
rroan, zailagoa, ez hain martxosoa...
Eta Bilintxen 'Behin batian Loiolan'
kantarekin gertatzen dana. 'Egan' tal-

Z•M

Gipuzkoako Terro Aldeak
MUSEO•ZUMALAKARREGI•MUSEOA
Ormaiztegi • Gipuzkoa
Diputación Local de Gipuzkoa

Bisita ordutegia:
Asteartetan: 15etatik 19etara
asteazkena, osteguna eta ostiralean:
10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.
larunbatetan:
10.30etatik 14.30etara, eta 15.30etatik
18.30etara.

Iriarte Erdikoa Etxea
20016 Ormaiztegi- Gipuzkoa.
Tfnoa.: 943-88 99 00
Faxa: 943-88 01 38

Eraikuntzak P. ARMENDARIZ

Filipinas, 13
ORDIZIA

Tfnoa: 88 49 50

✳ Karta Zerbitzua
✳ Lan menuak

RUBIORENA JATETXEA

Zaldizurreta, 7 Telf.: 88 57 60
20200 B E A S A I N




“Asterix eta Kleopatra”.
Goscinny-Uderzo. Elkar, 50
orr., 1.000 pzta.

Nork ez ditu ezagutzen Asterix eta Obelix? Ia gazte eta ez hain gazte, guztiek. Galiako pertsonaia hauen istorio dibertigarriak oso ezagunak dira, eta euskarara Joxemari Azurmendi zegamar idazle sarituak itzultzen ditu. Istoria hauek ez dira istorio huts. Hala esaten zigun linguistikako irakasleak behin eta berri, historiatik ere asko dutela, eta hark bazekien zerbait.

Inoiz marraztu den abenturarik handiena. Horixe esaten zaigu azalean. Eta umorea azalean bertan ageri da. 14 litro tinta txina, 30 pintzen, mina bigunezko 62 lapitz, 27 borragoma eta abar (67 litro garagardo ere) behar izan omen dituzte abentura hau marrazteko. Asterix, Obelix eta Panoramix Egiptora joango dira Kleopatrari laguntzera. Komeria franko izango dute Kleopatraren soldadu eta erromatarrekin.

Liburua ondo itzulita dago, herri hizkera ere sarri erabiltzen du zegamarak eta (hori da garrantzizkoena) gus-tora irakurtzen da. Ateraldi xelebreak dituzte pertsonaiek.



Tene Lehiaketa 1993. Elkar,
112 orr., 820 pzta.

Aurtengo *Tene Lehiaketako* sariak banatuta daude. Sarituak zazpi dira, baina guk bi goierritarren ipuinak aitatuko ditugu.

1. saria ezagun batek irabazi du, *Joxemari Azurmendik* alegia, aurreko erreseinakoak. Zegamarraren hizkerari buruz hor esandakoak oraingoan ere esan daitezke lasai asko. Hizkera herrikoia darabilela, gaztelar ia kutsatu gabea nahi baduzue, eta alderdi horretatik behintzat eredutzat har daitekeen. Euskara klase hau galtzen ari zaigu, oso jende gutxi dago horrela hitz egiten duenik, euskaldunzaharrak gehienbat. Eta ez da hori galtzen ari den gauza bakarra. Adibidez, konparaketak egiterako orduan natura eta baserri-giroko elementuak erabiltzen ditu. Gero, garai bateko jolasak...

Pertsonaia nagusiak aukeratzen duen hizketagaia era garai batekoa da. Eta istorio hori bere bizitza propialean

txertatzen du mutikoak, Euskal Herri-tik kanpoko istorio bat eta bere bizitza dira elkarren ondoan --nahasian-- azaltzen dira zenbait fikzio-mota tar-tekatuz. Guztiak du galtzen, bukatzen, ari den giro baten usaia. Eta zenbait gauza galtzea hobe, baina beste batzuri eutsi egin behar. Norberak egin behar-ko du aukera. Liburuan ere, aukeratu egiten da, nolabait esateko. Irribarre batekin amaitzen da ipuina. Bukaera arrosa du, beraz. Baina arrosak arantzak izaten ditu. Eta hortxe daude, irri-barrearekin batera.

Patxi Zubizarretak, 2. sarituak, ere erabili izan du eskolaren inguruko li-teratur-lanik saririk irabazteko. Baina Debako aurtengoa hirian kokatutako ipuin batekin lortu du. Berak piskat ezagutzen duen Parisen dabilta bi pertsonaia nagusiak. Istorio gazi-geza da Patxirena... Gehiago duela gazitik gezatik baino, esango nuke. Maitasuna eta gorrotoa, gure herri honek sendatu gabeko zauriak... Bukaera trajikoa du ipuinak, lagunik lasaia da deabruke-ria lazgarriena egiteko gauza, eta sor-tzen du halakoxe ezinegon bat, halakoxe etsipen bat... Hain hurbileko gaia darabil, izan ere! Eta hain gertu (?) da-go Paris, --hots, Madril-- maitasunaren eta gorrotoaren hiria! Maitale eta gen-darmeena, euskaldun eta ez-euskara-rena... Eta, ipuinean bezala, elkarrekin bizi behar!

Literatura aldetik, besteak beste, pa-ralelismoak aitatu behar: euskera eta ez-euskera, maitasuna eta gorrotoa, aberrian eta atzerrian bizi dena... Ore-kan daude elementu horiek bukaera ar-te. Bukaeran hausten da oreka hori. Baina haustura ez da bapatekoa, suma-tzen da zerbait badatorrela, horren es-peroan jartzen du Zubizarretak irakur-lea.

Jon Zabalegi

Irakur

EUSKALDUNON Egunkaria

KOLDO ETA ARANTXA IPARRAGIRRE:

“Irabazitako txapelak gogoa piztu digu”

Oraindik gazte izan arren, txikitari hasi zen beasaingar

anai-arreba bikote hau trikitixa jotzen. Koldok 7 urte izango zituen. Egun 17 ditu eta Arantxak 19. Gure irakurle gehienentzat ezagunak izango dira ziurrenik.

Joan zen San Jose egunean arratsaldean ETBri begira egon bazineta, hantxe ikusiko zenituzten Iparragirretarrak (neska ile-horia eta beltzarana mutila) kantari, soinua eta panderoa dantzatzuz. Euskadi Irratiak antolatutako Trikiti pieza berrien lehiaketara irabazi zuten trikitixaren atalean), beraiek konposatu eta jotako “Muru-mendiko Mari” piezarekin.

Ailegatu eta irabazi

“Gustora eta lasaituta”, daude Koldo eta Arantxa lehiaketa hori irabazi eta gero. “Horrenbeste denbora pasa ondoren, beharko lasaituta egon! Lehiaketa aurretik ordea, beti nabari izaten da halako urduritasun bat. Eta baita ondorengo minutuetan ere”. Hainbeste plaza eta erromerietan ibili arren, agian piska bat ere ohitu dira, baina “dena den, momentu horretan beti jarri ohi zara urduri. Hori barrutik datorren zerbait da eta askotan ezin da kontrolatu...”. Lehendabiziko aldiz aurkeztu ziren gainera lehiaketa honetara.

Trikiti pieza bat, edozein lehiaketa-rako denean, prestatu egiten al den aurretik galdetu diegu. “Beno, bai. Lehiaketa baten aurrean, zuk zera esaten diozu zeure buruari: zergatik ez dut parte hartzen? Soinua hartu eta ahal-egin guztiak egiten dituzu pieza berri bat ateratzeko. Pieza behin aterata, partitura bidaltzen duzu lehiaketara”. Eta, ahal bada, irabazi! Oraingo pieza honen hitzak Manuel Lasarterenak izan dira. Beste zenbait kasutan ere “lan egin du” beraientzat esaterako,



aurreko maketan.

Ikasi eta erakutsi dute

Trikitixaz gain, solfeo ikasketak amaituta dauzkate biok eta koraleko lehen urtea ere bai. Ahotsa ere inportantea dela eta, badirudi kantatzen ere ikasiak direla. “Egia esan, moldatzen gara, bai. Arlo honetan ere pittin bat saiatzea iruditu zitzaigun hoberen”.

Trikitixa jotzea txikitatik dakarten gauza izan arren, aurrera egiteko erabakia ere noizpait hartu beharko zuten. “Biok ikasten jarraitzen dugunez, oraindik ez dakigu oso seguru zer egin. Ni BUP-eko 3.a egiten ari naiz eta egia esan ez zait ikastea gustatzen, alperre naiz. Nire asmoa da musikaren bidetik jarraitzea. Badakit zaila dagoela, baina ahaleginen bat egin nahi dut. Gaizki aterako balitz aitaren tailerrean lan egingo nuke”. Arantxak, bere aldetik, ez dauka oso ziur zer bide aukeratu. COU amaitzen duenean erabakiko du, agian. Biek ere badakite musika arloan lehia handia dagoena, baina oraingoz hor daude.

Bikote honen adinerako trikitia guztiz alde batera uzten dutenak asko dira. Pozgarriren bat izango dute jarraitzeko... “Bai. Aurretik irabazi izan ditugu txapelketa batzuk. Adibidez, Euskal Herriko trikitilari txikien txapelketa bat irabazi genuen. Baina ez da hori dena: aurten irabazitako Txapelketa honek ere aurrera jarraitzeko gogo

handiak eman dizkigu”. Halere, ez dute egunero biok batera entsaiatzen, ez eta gutxiagorik ere. “Asteburuetan, aitak ‘pelmada’ ematen digunean, orduan entsaiatzen dugu. Gero, bakarka, gehixeago edo gutxi-xeago egunero beti zer-bait jotzen dugu”. Ez dakigu bizilagunak dantza ugari egiteko aukera izango duten, edota, beren esanetan, egun guztian aurikularrak erabili beharko ote dituzten. Ez dute belarriko minik

izango, halere.

Lehen aipatu bezala, maketa bat egina eta, entzun dugunez, erromerietan ibiltzeko talde bat ere osatua dute dagoeneko: “Egia da, bai. Hirukote bat osatu dugu; soinua eta panderoa jotzen dugu geuk, arrebak kitarra ere bai orain, eta hirugarrenak bateria jotzen du. Iazko udan hasi ginen hirukote-lanetan eta badirudi jendeak gustoko duela”. Idiazabalgo San Inazio Jaietan jo zuten, gustora aritu ziren eta jendeak ondo erantzun zuen. Aita ‘izaldira’ izan eta pozik, nahiz piska bat lotsatu, bertako jende asko ezagutzen bait dute.

Iparragirretarrak leku askotan jotzen aritu dira, saiatu dira erromerietan, ez-tai, e.a.-etan, duela hiru urte kanpora ateratzen hasi zirenez geroztik. Uste dute jendea trikitiaren oso zalea dela dantza egiteko orduan. “Beno, herri handietan agian ez, baina herri txikitari beti egon izan ohi da egunen bat, non jendea trikitixa-dantza egiten duen. Euskal Jaiak dira adibide, bertsolari, harrijasotzaile eta besteekin trikitilariak da ohizkoa”. Gazteek, akaso, nahiago izango dute ‘Akelarre’ eta ‘Egan’ bezalako taldeekin dantza egitea, baina hori beren ustez ulergarria da.

Bukatzeko, utz ditzagun kontuak eta goazen festa-garaiotan Iparragirre anai-arrebaren musika alaia gozatzerara.

Zirika Irratia / Estitxu Imaz

Ataungo kontuak...!

Elkarrizketa errimatuak

(...)Elkarrizketa hauek, nahiz eta gertatu zirenean bi lagun artean eman, gaur egun bakarriketa modura mantentzen dira.

"Bi andra alkarrekin hitzeitten asten die ta:

- Aizan, pentsatzen ta pentsatzen natxon gu etxeko neska zaarra ta zuen etxeko mutil traskallu oi primeran etorriko liekela alkarrekin.

- Neoni oixe pentsatzen ezpaneon kakatan itto neilla."

"Bi andran arteko elkarrizketaat:

- Pentsatan ta pentsatan natxon.

- Ze pentsatzen den ba?

- Ni hildakon lau launek eamango nauela andatan, Joan de Berratan, ondoen kantatan, orduntxe nola parrei eutsi bear dioan natxon pentsatan."

"- Maria goikoa.

- Zer den beekoa?

- Goazeman itturia.

- Etzeukenat betaik.

- Zeintzan bada?

- Senarra etorri.

- Zer ekarri?

- Zapata ta galtzerdi.

- Ze kolore?

- Txuri ta gorri.

- Zenbat kosta?

- Errelbi terdi."

Elkarrizketa hauek nahiko urriak dira. Guk inkestatu ditugun berriemaileek, elkarrizketa hauek ia aldaketarik gabe esan dizkigute. Mantentze honetan errimak eragin handia du: alde batetik, oroitzapenean hobetoago gordetzen laguntzen duelako, eta bestetik, jendea beraien gurasoei entzundako errima tradizionalak kontserbatzen ahalegintzen delako.

Anekdotarioa

Anekdotario honetan bi zati bereizi ditugu:

a).- Euskara-erdera: bi hizkuntza hauen bizikidetasunarengatik sortutako zenbait bitxikeria.

b).- Euskara: bertan koplak, bertso, ipuin, istorio, e.a. sartu ditugu.

"San Antonena:

Beste beñe, Benardok bazon semeat da ue ta bik badijoste Zumarraa zaldie saltzea; eta badijoste ta jitok Eitzalgo aldapan betigora zijozela. Zaldie zaarra, erdi itsututakoa eo ola, zaldi zaarren bat mentzeamen ba ta, jito orik as-ton bat polit xamarra ta esan mentzien:

- E, astoa burro kaballo truk.

Jito orik e parre ein da aurea seittu

ementzioen, zaldiri beidau mentzioen

baño zaldie txarra omentzeuken ba. Geo seme Bernardo orrekin mentzizon, motiko koskorra Benarko oi ta esan mentzizon:

- E, ño, eskerrak geo niie, ni Ameskoalden da ibillitakoa nok gaztetan ta erdera pixkat ikasi non".

"Zunmezko bentatik gora jun da an lanen aiementzien eta oixe erdaldune mentzeon Zunmezko bentan etxe-koandre, baño eskau ezkeo gaizkixago esandare entenditzen zona. Eta nausik an lanen zeuzkenetakoati esan mentzizon:

- Bueno, gaur junai i (asteune mentzan ta ez mentzien jetsi bestek) ta eskallotzak lau pinta ardo ta ogiat ta jallen pagauko diula.

Ala jun ementzan ta:

- Cristina, arriba abajo, cuatro vinos y un pan, domingo sin pagar.

Baño bestek entenditu ementzion, eman ementziotzan arrek".

"Amazana gurek eintzon beiz politte. Olazitik etortzen zien jitok eta euskaldunek zien sobrare jito orik. Eta oixe, kazuela zaarrek eta guardasolak eta konpontzen zittuen. Motil gaztea ementzan. Atarin gendun langen ondon arri aundiat, arren gañen eseita motill oi ta kazuela zaarrik eo konpontzeko esan ementzion da:



UDA HONETARAKO AUKERA ONENAK
ESKEINTZEN DIZKIZU TXINDOKIK
FAMILIARENTZAT

* Hotel eta apartamenduak Kanariar eta Balear irletan eta kostaldean.

* Etxeak alokairuan Landetan.

* Xacobeorako zirkuitu hoberenak.

* Eurodisney eta Futuroscoperainoko bidaiak.

GAZTEENTZAT

* Europa eta Afrika iparretik zirkuitoak.

* Asiako lekuri interesgarrienak.

* Rafting ikastaroak Huescan larunbatero.

"DESTINU BERRIAK"

* Zirkuituak eta egonaldiak Cuban.

* Egonaldiak Martinica, Guadalupe eta Indietako Cartagenan.

* Zirkuitu interesgarriak Vietnamen.

Kontsulta itzazu gure tarifa bereziak.

% 5eko deskontuak goierritarre!



ENSO-GUTZEIT OY

Finlandian sortzen da ekologiarren
gainean idazteko papera

San Migel z/g LEGORRETA 20250 Gipuzkoa
Tfnak.: (943) 80 64 36 / 80 64 42

Unanue
— GOZOGINTZA —

-Nagusia, 17 88 15 51

-Santamaria, 10 88 11 49

-J.M. Barandiaran, 9 88 88 36

-Obradorea: Filipinas, z/g 8812 65

ORDIZIA

- No entiendo.

Amazonak ez pentsau ijittoa ikusi zonen euskaldune izan bear zonik. Beize esan ementzion da:

- No entiendo castellano.

- Emakumea euskeraz ai naiz ba."

"Bat Martin parrat

Bi Martin ipurdi

Iru zakue bete diru

Lau zakurak jango alau

Bozt kakatan plot

Sei sillan esei

Zazpi txapela eantzi

Zortzi ikusi gabe ezin etsi

Beatzi ikullua jun da beie jetzi

Amar katuak mar mar

Amaika zakurren lukainka

Amabi plateren bi begi

Amairu gizonak andrea nai du".

"Bein mentzan Juan tzarra

joan ementzan batzara

jan ementzon aza berdea

eiñ ementzon kaka berdea

ue zeñentzako?

Itzeitten donantzako (edo parre eitten donantzako)".

"Urrutxuko San Anton Izalgo ternon aionan garoa ebaitzen, ternon nausik jun eta esan zonan:

- Ataunen zenbat lapur zeate San Anton?

- Izalen gizon jatorrak aiñe bai".



"Artzaiak Amezketa ondo bizi dittuk, batez baño obek dittuk 20 milla duro". Garai haietan artzaiek beste batzuk baino diru gehiagorekin ibiltzen zirela adierazteko espresio hau abesten zuten.

"Gezurrik aundiña zeñek esan:

Itsasoan ai dia arbolak aldatzen, itsuak ikusten du etxea erretzen, mutua deiadarka ari adierazten, ankamotzak badaki bidean korritzen".

"Bi launek apustue jokau zuen zein alper aundiagoa izan: Bat lurren etzan omeonan ta bestea etzateko alperrez zuti geittu eta irabazi".

"Baserritar batek sorotik etxea arrea eaman bear mentziñan ta astokin jun omenonan. Ordun gizonak astori karga guztik eastea geiegi izango zala ta arrea beak bizkarren artu ta aston gañen jarri omenonan.

- Arre astoa!

Esate omentzonan. Astoa geldi-geldi jute omenonan, ezin jun. Ta astoi esate mentzonan:

- Alare astoa jundeikek gustoa, karga guztik ez damatzak ik, nik e bazeamat mordoat".

Jone Arin / Josune Arruabarrena ("Ataungo aho hizkuntzaren barne muinak", 2. alea)

Autowag, s.a.

Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO:

Euskalerria K.

ORDIZIA

Tlfonoa: 88 04 15

Pentsuak

Ongarriak

Lantresnak

Industrialdea

OLABERRIA

Tlfonoa: 16 07 07

Iztueta zaldibiarra

Juan Inazio Iztueta Etxeberria, "Txuri" ezizenez, Zaldibian jaio zen 1767an, eta bertan hil 1845ean. Gartzelan urte mordoska igaroa, Donostiako aduana-buru izatera iritsi zen. Bertsolari eta bertsozale, bere poesi/bertsorik ezagunenak "Kontxesiri" eginak ditugu.

Bi liburu ederren egile dugu: 1) "Gipuzkoako Dantza Gogoangarrien Kondaira (1824-26) eta 2) "Gipuzkoako Probintziaren Kondaira". Lehenean, Gipuzkoako 36 dantza, galtzeaz zeudenak, eta hainbat herri-kirol eta ohitura zahar jasotzen dizkigu. Bigarrenean, gure Herrialdearen Geografia eta Historia kontatzen digu. Biek ala biak euskara dotorean burutuak, "garbizaletasunez" zipristinduak.

Hona segidan "harribitxi" pare bat gure Iztuetak bere Herriari eta honen Kulturari (guztien gaindik Euskarari) agertu zion maitasun sutsuaren lekuko: --Lehen gerrate karlistaren ostean, gure Herriaren gainbeheraren lehen zantzuak (gero egia triste bilakatuko zena) susmatuz, *Euskara* eta *Foruak* elkar uztarturik, biak bat eginik ikusi zituen zaldibiarrak. Horixe da gure "salbazio"-bide bakarra:

"Gipuzkoako biztanle prestu guztiak badakite argiroki beren zoriona datorriotela jatorriz dituzten *Fuero* oneskietatik; bañan hoek oso ta garbi



gordetzeko gauzarik beharrena zer dan ezagutzen dutenak gitxi dira txit. *Fueroak* beren oñean irosotzeko kirtenik irmoena eta euskarririk seguruenena da Euskarazko hizkuntzari ondo kontu egitea; zergaitik alkarri laztandurik arras itsatsiak arkitzen diran, batak bestea ezin laga dezakeen moduan. *Euskara* hil ezkeren *Fueroak* ez dira biziko; bañan *Euskara* bizi bada, *Fueroak* piztuko dira. *Fueroak* nahi

dituanak maite izan behar du *Euskara*; eta *Euskara* maite dabenak *Euskaldunai Euskaraz* behar die hitzegin ta adierazo berai dagozkiten gauza guzti guztiak. Bestela, zapuztuko da *Euskara*, muixinduko dira *Euskaldunak*, eta iges egingo dute *Fueroak*". ("Gipuzkoako Probintziaren Kondaira", 1847. Ortografia egokituari, gaurko jendeak uler dezan).

--Eta zer deritzozue hurrengo pasarte honi? "Zaharrak, berri", ezta?:

"Ez da lotsagarri ez ezik, mingarri ere, Gipuzkoako herri leialetan gazteria eskolatzeak, hiztxo bakarra ere *Euskaraz* ez dakiten Maisu erdaldunak ifintea? Eta oraindik are hilgarriagoa baizik ez da eskolako haur gaixoak hitz bat *Euskaraz* errotzen zaiotelako, beraren etsai ezagutuak dauden gizon erbesteko hoek ematen diezaten azote gogorrek ontzat ematea. Zer bada! Hain bekatu handia da *Euskaldunai Euskarazko hitza* jalkitzea? A!, *Euskara* maitagarri bizikor gixaixoa! Ez dira, ez, kanpotarrak bakarrik zu ikusi nahi etzaituztenak; badituzu hurrean ere, beren izate guztia zuri zor dituztenak, zu irosotzeko buru hautsitze handirik egingo ez luketeanak". ("Gipuzkoako Probintziaren Kondaira").

(Jarraitzeko asmotan)
Arkakusoak

MIRENTXU LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 2.
BEASAIN

Tfna.88 14 57

URBIETA JATETXEA

Eguneroko menua eta banketeak

Espezialitatea Txuleta
kokote brasan
Etxeko posteak

HELBARRENA

TFNOA 88 10 19

ATAUN



MAIZPIDE
euskaltegia

Tfna.: (943) 88 92 31 / 32
L A Z K A O

UDAKO IKASTAROAK:

1.-Maila guztiak: Euskalduntze urrats guztiak

Alfabetatzea

Alfabetatze tekniko

EGA eta lau hizkuntz eskakizunak

2.-Goierritar guztiok duzue lehentasuna

3.-Prezioa: 12.000 pezeta

JATETXE KUALIFIKATUA IDIAZABALEN DAUKAZU:

Zepai Jatetxea

Zepai jatetxea, orain dela ez hainbesterarte errepide nagusia zenaren aldamean aurkitu dezakegu. Agustina Mujika eta Akilino Izagirrek (Zepai bertsolari sonatuak) irekitako Idiazabalgo taberna-jatetxe eta ostatu honek bere urrezko eztaiak ospatzen ditu. Gaur egungo jatetxe arrakastatsu honen gidaria haien seme Alejandro dugu, bere ondoan, sukaldean, Mari Karmen emaztea eta Jon, suhia, daudela. Salan, berriz, beren alaba, Kristina.



Ondo kalifikatua gidetan, bataio eta ospakizun asko hartzen dituzte beren baitan, turista eta errepideko jende asko hurbiltzen da bertara. Etxe honetako karta, orohar, tradizionala da. Euskal sukaldaritza tradiziozko errezeta ugari aurki daitezke bertan. Bestelakoak jan nahi balira ere, sukaldaritza modernoko platerak dasatzearekin osatu liteke otordua.

Menu eredugarri bat aipatzez geroztan, honelamoduzko bat: arrai zopa bikain bat (500 pzta.); "cromatistico mo-

nederro" delakoa. Donostiako erara eginiko txangurro baten gainean jarria eta, guzti hori, ilar pure batez inguratua (1.000); legatza zukutsu bat, onddoe-kin gixatua (2.250); eta tripaki apeta-garriak barazki saltsa batez lagunduak eta piperrauts, piperrauts gorri eta cayena txispez atunduak (1.000). Nahiz eta arrazio erdiak eskatu, oso bezala ordaindu behar dela aipatzea derrigorrezkoa dugu. Kontutan hartzeak dira ere, sagarren gainean ezarritako

plantzan eginiko foie-grasa (1.800), amerikar eran eginiko rapea (2.250) eta muttur errebozatuak (1.000). Goierriko babarrunak ere ederki prestatzen dituzte.

Postretan, berriz, aukera zabala dute Zepai-enean, etxe-koen grina handienetako bat gozogintza dela esan behar. Arroz-esnez beteriko marrubiak, mamiz eginiko milojak eta arroz-esne-krema eta laranja zuku gainean, crepe-n, sagar erreak, dira gustu eta grazia handiz egiten diren gozoak.

Laburtuz, Zepain ederki eta gogo estimagarriarekin egiten da lan. Jatetxe moderno hau berriturik, ondo eta gustoz jarria aurki zenezake. Zerbitzuak ez dauka kejarik, mogitzen dira eta prezioak aukerakoak dira: 3.000 pezetatik 6.000ra. Eguneako menu erakargarria 1.500etan. Norbaitekin ezin hobe gelditu nahi izanez gero, dei 801089ra, Idiazabalgo Zepaira, eta eraman laguna hara.

Rosa eta Jon

BANDRES GESTORIA

UAP. Aseguruak

Goierri Kalea
Tfnoa: 88 12 58
ORDIZIA



*Irakurri
eta
zabaltrazu
Goierritarra*

GOIERRITARRA

Tfnoa: 88 96 12

publizitate-prezioak:

Behin:

Modulo bat.....4.000 pzta.

Bi modulo8.000 pzta.

Orrialde erdia.....20.000 pzta.

Orrialde osoa.....40.000 pzta

Prezio hauek zenbaki baterako baliokidute. Urtean 10 zenbaki argita-


ratzen ditugunez, 5 edo 10 zenbaki-tan beren publikitatea egin nahi dutenek hurrengo deskontua izango dute:

Modulo bat.....3.500 pzta.

Bi modulo7.000 pzta.

Orrialde erdia.....17.500 pzta.

Orrialde osoa.....35.000 pzta.

 **orkli, s.coop.**

**Kalefazio eta ur beroarentzat diren erregulazio,
segurtasun eta kontrol osagaiak**

ORKLI Koop. E. - 20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: (943) 88 07 00 Telex: 38415 ORKLI, e - Faxe: (943) 88 73 08


CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Guzti hau irudi berri baten
hasiera baino ez da,
profesionaltasun garbiko
bidean.**



Zuk badakizu Euskadiko Kutxak gogor diharduela euskal gizarte eta enpresagintzaren alde. Oso Kutxa geure-geurea dela. Euskal Herriko Kutxa. Baina, ezagutzen al duzu gure profesionaltasun -eta aholkamendu- maila.

Gazteentzat, esate baterako, onura gehiago. Familientzat, interes handiagoak kontu korrontean eta ohizko libretan. Beste kutxetan baino gehiago.

Eta guzti hau irudi berri baten hasiera baino ez da, profesionaltasun garbiko bidean.